

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren jarduketa-planak

Eusko Jaurlaritza
(2017-2020)

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1.	PLANAREN TESTUINGURUA.....	3
2.	ESKERTZAK.....	4
3.	AGIRI HONEN EGINKIZUNA ETA HELBURUA	5
4.	GIZARTE EKONOMIAREN DEFINIZIOA.....	6
	4.1. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa eta Garapen Iraunkorreko Helburuak	6
	4.2. Gizarte Ekonomiaren esparru europarra.....	9
	4.3. Gizarte Ekonomiaren esparru nazionala.....	14
	4.4. Kooperatibismoa, erreferentzia-marka Euskadin.....	15
5.	EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAILEKIN ETA PLANEKIN ERLAZIOAK.....	27
	5.1. 2017-2020 Enplegu plan estrategikoa	32
	5.2. 2020 Euskadiko ekintzaitzako erakunde arteko plana	36
	5.3. Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 – Basque Country Estrategia	42
	5.4. "Basque Country 4.0" Industrializazio-plana 2017-2020.....	43
	5.5. IV. Gazte Plana 2017-2020.....	45
	5.6. Unibertsitate Plana 2015-2018.....	46
	5.7. Lanbide Heziketako EAeko V. Plana 2018-2021	47
6.	EUSKO JAURLARITZAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA PRIBATUEK SUSTATUTAKO FINANTZIAZIO TRESNA NAGUSIAK.....	48
7.	DIAGNOSTIKOA ETA AMIA	55
	7.1. Kooperatibismoa eta AMIA	55
	7.2. LSA – ASLE eta AMIA.....	56
	7.3. Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa eta AMIA.....	57
8.	IKUSPEGIA, ERRONKAK ETA HELBURUAK	58

“Euskadi, bien común “Euskadi, auzolana”

1. PLANAREN TESTUINGURUA

Plan honen helburua da Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren lan-ildo nagusiak egituratzea XI. legealdian.

Bereziki elkarriketaren balioari, agenteen arteko akordio-ahalmenari eta elkarlanari begiratuz, zailtasun ekonomikoak gainditzeko eta gizarte-kohesioa eta ongizatea berreskuratzeko giltzarri gisa.

Izaera bereizle batekin eta gizarte ekintzaile, solidario eta auzolanean aritzeko gai den baten “oinarriarekin”.

Eusko Jaurlaritzaren *claim* berriarekin eta aipatzen dituen balioekin lerrokatuak: bien común, auzolana.

“gizarte ekintzaile, solidario eta auzolanean lan egiteko gai den baten oinarri eta kultura kolektiboa”.

“Ondoko hauei balioa emanez:

- elkarriketa,
- diferenteen arteko akordiorako ahalmena eta elkarlana,
- zailtasun ekonomikoak gainditzeko,
- gizarte-kohesioa eta ongizatea berreskuratzeko giltza nagusi gisa.”

2. ESKERTZAK

Plan hau sektoreko agente guztien parte-hartzeari eta laguntzari esker gauzatu da.

Ekintza-ildoak garatzeko prozesuan parte hartu duten erakundeen laguntzarik eta ekarpenik gabe, lan hau ezin izango zen burutu. Euren parte-hartzearen garrantzia azpimarratu nahi da eta Eusko Jaurlaritzak berriro ere eskerrak eman nahi dizkie.

Lankidetzarik gabe ez dago gizarte-garapen ekonomikorik; mila esker guztioi zuen babesa emateagatik.

- Asle, Euskadiko Lan Sozietateen Taldea eta hainbat Erantzun Mugatuko Lan Sozietateko /Lan Sozietate Anonimoko enpresa.
- Bilboko Udala.
- Donostiako Udala.
- Gasteizko Udala.
- Mondragon Korporazioa (Eroski, Fagor, Laboral Kutxa, Mondragon Unibertsitatea).
- EKGK, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ehlabe, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte.
- Elkargi EBB.
- Elkar-Lan, S.Coop.
- Eudel, Euskadiko Udalen Elkarte.
- Gizartea, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte.
- Konfekoop, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. (ERKIDE-Euskadiko Lan Elkarte, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa, FCAE – Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioa, FCTE – Euskadiko Garraiolari Kooperatiben Federazioa).
- Lanki
- Reas, Ekonomia alternatibo eta solidarioko sareen sarea.
- Sareen Sarea
- Sindikatuak (ELA, LAB, CCOO, UGT).
- Deustuko Unibertsitatea.
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Iteam aholkularitza.

3. AGIRI HONEN EGINKIZUNA ETA HELBURUA

Lan eta Justizia Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak ondorengo eginkizun hauek ditu:

- Gizarte Ekonomiako enpresen eta erakundeen interes ekonomikoak eta sozialak sustatzea.
- Gizarte Ekonomiako enpresen eta erakundeen eginkizunak eta balioak sustatzea.
- Sektoreko enpresen eta erakundeen (kooperatibak, lan-sozietateak, mutualitateak, elkarteak, fundazioak eta gizarte-enpresak bezalako modu berriak) aitorpen instituzionala, politikoa, soziala eta juridikoa indartzea.
- Industria-lehiakortasunerako planak sustatzen dituzten Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremanak mantentzea, baita Gizarte Ekonomiarekin lotura izango duten beste plan batzuekin ere.
- Gizarte Ekonomiaren familia osatzen duten erakundeek interesa izango duten Eusko Jaurlaritzako sailekin elkarlanean jardutea.
- Euskadiko gizarte-ekonomia garatzeko araudia etengabe egokitzea.

Gizarte Ekonomia da jokabide dinamikoa eta arinak dituzten eta gizartean zalantzarik gabeko garrantzia duten enpresak sortzeko modu espezifiko bat. Kontzeptuan sartuta dago gizarte-kohesioak planteatzen dituen beharrei erantzuteko sortutako antolakuntzako berrikuntza guztiak eta euren lotutako figura juridikoak barne hartuko dituen edozein enpresa-forma.

Gizarte Ekonomiaren enpresa ekiteko modu bat da, eta ondorengo balioak barne hartzen ditu:

- Pertsonak eta gizarte-helburua kapitalaren gaintik nagusitzea.
- Kudeaketa parte-hartzaileko eta demokratikoko bokazioa duen enpresa-antolakuntza eta -kultura.
- Erabiltzaileen interesak eta interes orokorra bateratzea.
- Bertako kideen artean elkartasun- eta erantzukizun-printzipioak aplikatzea eta babestea.
- Botere publikoekiko kudeaketa-autonomia eta independentzia.
- Soberakin gehienak interes orokorraren, kideentzako zerbitzuen eta garapen iraunkorraren aldeko helburuak lortzeko aplikatzea.
- Gizarte Ekonomiaren familiak, lana eta aberastasuna sortzeko beste enpresa modu bat:
 - Kooperatibak > egitura eta funtzionamendu demokratikoa.
 - Lan-sozietateak > gehiengo parte-hartzea langileen kapitalean.
 - Mutualitateak > gizarte-aurreikuspena.
 - Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak > baztertuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea.
 - Enpleguko zentro bereziak > desgaitasuna duten pertsonentzako prestakuntza eta enplegua.
 - Fundazioak > ondarea interes orokorraren zerbitzura.

4. GIZARTE EKONOMIAREN DEFINIZIOA.

Gaur egun Gizarte Ekonomiatzat hartzen denari buruzko hainbat definizio daude. Atal honetan nazioarteko ikuspegi batetik definituko dugu, Europatik igaroz gure lurraldeko errealitatera heldu arte.

4.1 Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa eta Garapen Iraunkorreko Helburuak

4.2 Gizarte Ekonomiaren esparru europarra

4.3 Gizarte Ekonomiaren esparru nazionala

4.4 Euskadi erreferentzia-tokia. Gizarte-ekonomia datutan / EKGK / Konfekoop / Elkar-lan / Mondragon Corporacion / ASLE

4.1. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa eta Garapen Iraunkorreko Helburuak



4.1.1. Gizarte Ekonomiaren munduko esparrua

Iturria: ACI – Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa

Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa da mundu osoko kooperatibak elkartzeko, ordezkatzeko eta hauei zerbitzatzeko 1895ean finkatutako gobernuz kanpoko erakunde independentea. 1995ean, Aliantzak Nortasun Kooperatiboari buruzko adierazpen berrikusia hartu zuen. Adierazpen horretan kooperatiba baten definizioa, kooperatiben balioak eta ondoren deskribatuko diren kooperazioko zazpi printzipio biltzen dira.

Aliantzaren helburua da erreferentziako erakunde bihurtzea, ahots global eraginkorra eta efizientea, ezagutzak trukatzeko foro batekin, eta kooperatibentzako eta kooperatibei buruzko ekintza ikasiarekin eta koordinatuarekin.

Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak mundu osoko kooperatibak bateratzen ditu, balio eta printzipio kooperatiboak babesten ditu, eta balioetan oinarritutako bere negozioen eredu ekonomiko bereizgarria defendatzen du. Eredu horrek, gainera, pertsoneri eta komunitateei euren garapenari buruzko eraginkortasun eta autolaguntzako tresna bat eskaintzen die. Aliantzak kooperatiben interesak eta lorpenak defendatzen ditu, jardunbide egokienak eta esperientzia onena zabaltzen ditu, eraikitze haiek duten ahalmena indartzen du, eta denboran haien bilakaera eta errendimendua gainbegiratzen ditu.

4.1.2. Kooperatibaren definizioa

Kooperatiba elkarte autonomo bat da. Berau osatzen duten pertsonak bat egitea erabakitzen dute —nork bere borondatez—, behar eta helburu ekonomikoak, sozialak eta kulturalak asetzeko, jabetza bateratuko eta kudeaketa demokratikoko enpresa baten bitartez.

Kooperatibak bertako kideen jabetzako eta hauek kudeatutako negozioak dira. Berdin dio bertako kideak bezeroak, enplegatuak edo egoiliarak izan; negozioaren jarduerari lotuta boto bera dute eta mozkinak berdin banatzen dituzte.

Baloreen bidez sustatuta eta mozkinak lortzera mugatuta ez dauden negozio gisa, kooperatibek nazioartean adostutako printzipioak partekatzen dituzte eta elkarrekin jarduten dute kooperazioaren bitartez mundu hobe eraikitzeko.

4.1.3. Balio kooperatiboak

Kooperatibak autolaguntzako, autoardurako, demokraziako, berdintasuneko, parekotasuneko eta elkartasuneko balioetan oinarrituta daude. Bertako fundatzaileen tradizioan, kooperatibako kideek zintotasuneko, jarrera harkorreko, gizarte-erantzukizuneko eta besteekiko errespetuarekiko balio etikoetan sinesten dute.

Printzipio kooperatiboak

Printzipio kooperatiboak dira kooperatibek euren balioak praktikara eramateko kontuan hartzen dituzten ildoak.

1. Elkarte boluntarioa eta irekia

Kooperatibak erakunde boluntarioak dira, euren zerbitzuak erabiltzeko gai diren eta elkartearen ardura hartzeko prest dauden pertsona orori irekiak, sexu, gizarte, arraza, politika edo erlijio bazterketarik gabekoak.

2. Kideen kontrol demokratikoa

Kooperatibak dira, bertan politikak ezartzen eta erabakiak hartzen aktiboki parte hartzen duten kideek kontrolatutako erakunde demokratikoak. Aukeratutako ordezkari-funtzioa betetzen duten gizon eta emakume guztiak erantzule dira kooperatibako kideen aurrean. Oinarrizko kooperatibetan kideek boto-eskubide bera dute (kide bat, boto bat); beste maila bateko kooperatibetan, berriz, modu demokratikoan ere antolatzen dira.

3. Bazkideen parte-hartze ekonomikoa

Bazkideek ekitatiboki egiten diote ekarpena kooperatibaren kapitalari eta demokratikoki kontrolatzen dute. Gutxienez kapital horren zati bat kooperatibarena da. Gehienetan, bazkideek konpentsazio mugatu bat jasotzen dute, betiere aukera badago, bazkide izateko jarritako kapitalaren arabera. Bazkideek etekinak ondorengo helburu hauetarako erabiltzen dituzte: kooperatibaren garapenerako, gehienetan erreserbak sortuz, hauetariko zati bat, gutxienez, banaezina delarik; bazkideen onurarako, kooperatiban egindako lanaren arabera; eta bazkideek onartutako beste jarduera batzuk babesteko.

4. Autonomia eta independentzia

Kooperatibak nork bere buruari laguntzeko elkartek dira, eta bazkideek kudeatzen dituzte. Beste erakunde batzuekin hitzarmenak sinatzen badituzte, gobernuak barne, edo kanpo-finantziazioa lortzen badute, bertako bazkideen kontrol demokratikoa eta kooperatibaren autonomia bermatzeko moduan egingo dute.

5. Hezkuntza, heziketa eta informazioa

Kooperatibek hezkuntza eta heziketa ematen diete bazkideei, hautatutako ordezkariari, zuzendaritza-taldekoari eta langileei, kooperatiben garapenean modu eraginkorrean lagundu dezaten. Jendea, orokorrean, — bereziki gazteak eta iritzi-gidariak— informatzen dute, elkarlanaren izaeraz eta onurez.

6. Kooperatiben arteko elkarlana

Kooperatibek beren bazkideen alde jokatzeko ahalik eta modurik onenean, eta mugimendu kooperatiboa indartzeko dute, herri, nazio, eskualde eta nazioarteko egituretan elkarrekin lan eginez.

7. Komunitate-sentimendua

Kooperatibek beren komunitateen garapen iraunkorra lortzeko lan egiten dute, bazkideek onartutako politiken bidez.

4.1.4. Garapen iraunkorreko helburuak

Munduko Helburuak bezala ere ezagutzen diren Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) dira, pobrezia amaitzeko, planeta babesteko eta pertsona guztiak bakean eta oparotasunean bizitzeko neurriak hartzeko unibertsoari egindako deia.

17 helburu horiek Milurtekoa Garatzeko Helburuen lorpenetan oinarritzen dira, eremu berriak ere barne hartzen badituzte ere, adibidez, klima-aldaketa, desparekotasun ekonomikoa, berrikuntza, kontsumo iraunkorra, eta bakea eta justizia, beste hainbat lehentasunen artean. Helburuak elkarri lotuta daude. Askotan baten arrakastaren gakoak normalean beste bati lotutako gaiak nahastuko ditu.



GIHein batera aukera onenak hautatzeko lankidetzak eta pragmatismo-izpiritua agertzen da, etorkizuneko belaunaldien bizitza, modu iraunkorrean, hobetzeko helburuarekin. Bakoitzaren lehentasunekin eta munduaren, oro har, ingurumen-erronkekin bat datozen herrialde guztiek hartzeko orientabide eta helburu argiak eskaintzen dituzte.

GIHak agenda inklusibo bat dira. Pobreziaren oinarrizko arazoak aztertzen dituzte eta pertsonen eta planetaren onurarako aldaketa positiboa lortzeko bat egiten gaituzte.

“2030 Agenda abian jartzea babestea Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP) lehentasun garrantzitsu bat da”, adierazi du Helen Clark NBGParen administratzaileak. “GIHein plan eta agenda komunak eskaintzen dizkigute gure munduak dituen erronka nagusietako batzuei —pobrezia, klima-aldaketa eta gatazkak— aurre egiteko. NBGPak aurrerabidea sustatzeko eta herrialdeei garapen iraunkorraren bidea hartzen laguntzeko esperientzia eta ezagutza espezializatuak ditu.

NBGPak planteatutako garapen iraunkorreko 17 helburuetatik, Gizarte-ekonomiak, funtsean eta zuzenean, horietako lau lortzen lagunduko luke. Zehazki, ekarpen hauek egingo lituzke: desparekotasunak murriztu, industria, berrikuntza eta azpiegitura sustatu, lan duina eta hazkunde ekonomikoa lortu, eta produkzio- eta kontsumo-arduratsuen eredu bat sendotu.

Era berean, Gizarte Ekonomiak kanpo-efektu positiboak sortuko lituzke. Kanpo-efektu horiek, zeharka, garapen iraunkor gehigarriko helburuak lortzen lagunduko lukete, adibidez, kalitatezko hezkuntza-sistema bat eraikitzea, genero-berdintasunean urratsak ematea, ingurumenaz kontzientziaztea (klimaren aldeko ekintza) eta helburuak lortzeko itunak sortzea.

4.2. Gizarte Ekonomiaren esparru europarra

Gizarte Ekonomia Europar Batasunean

Iturria: Ekonomia Publiko, Sozial eta Kooperatiboari buruzko Ikerketa eta Informaziorako Nazioarteko Zentroak (CIRIEC) Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearentzako egindako txostenaren laburpena.

Gizarte Ekonomiaren gaur egungo esparrua eta jarduera-eremua:

Bere garrantzi kualitatiboaz haratago, GEk azken hamarkadetan arazo sozial berriak konpontzen laguntzeaz gain, ondorengo ekintza hauetarako beharrezko erakunde gisa finkatu da: hazkunde ekonomikoaren egonkortasunerako eta iraunkortasunerako, zerbitzuen eta beharren arteko doikuntzarako, gizarte-premien zerbitzura dagoen jarduera ekonomikoaren balioa handitzeko, errentaren eta aberastasunaren banaketa orekatuagoa egiteko, lan-merkatuan desorekak zuzentzeko eta, azken batean, demokrazia ekonomikoan sakontzeko.

Gizarte Ekonomiaren erakundeen identifikazio eta aitorten modernoa.

Protagonistek beraiek egindako GEren kontzeptuzko mugatze berriena planteatu da, Kooperatiba, Mutualitate, Elkarte eta Fundazioen Europako Konferentzia Iraunkorrek (CEP-CMAF) sustatutako *Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Gutunean*. Hona hemen printzipio horiek:

- Pertsona eta gizarte-helburua kapitalaren gainetik nagusitzea
- Atxikimendu boluntarioa eta irekia
- Bertako kideen kontrol demokratikoa (fundazioentzat izan ezik, hauek ez baitute kiderik)
- Erabiltzaileen interesak eta interes orokorra bateratzea
- Elkartasuneko eta erantzukizuneko printzipioak babestea eta aplikatzea
- Botere publikoekiko kudeaketa-autonomia eta independentzia.
- Garapen iraunkorraren, kideentzako zerbitzuen interesaren eta interes orokorraren aldeko helburuak lortzeko soberakin gehien erabilera.

Jarduera-sektore guztietan, gizarte-zerbitzuetan, arlo soziosanitarioan, aseguruetan, banku etiko eta kooperatiboan, nekazaritzan, energia berriztagarrietan, birziklapenean, etxebizitzan, hezkuntzan, turismoan, kulturean, kiroletan eta abar dago Gizarte Ekonomia. Social Economy Europe-k zeregin hauek ditu:

- Gizarte Ekonomiako enpresen eta erakundeen interes ekonomikoak eta sozialak sustatzea;
- Gizarte Ekonomiako enpresen eta erakundeen eginkizunak eta balioak sustatzea;
- sektoreko enpresen eta erakundeen (kooperatibak, mutualitateak, elkarteak, fundazioak, erakunde paritarioak eta gizarte-enpresak bezalako modu berriak) aitopren instituzionala, politikoa, soziala eta juridikoa indartzea.

Europako Parlamentuaren arabera, Gizarte Ekonomia eredu sozial europarraren zutabeetako bat da eta «funtsezko papera betetzen du Europako ekonomian, errentagarritasuna eta elkartasuna batuz, kalitatezko enpleguak sortuz, kohesio soziala, ekonomikoa eta lurraldeari dagokiona indartuz, gizarte-kapitala sortuz, eta hiritargo aktiboa, elkartasuna eta balio demokratikoak dituen ekonomia-modu bat sustatuz. Horrek gizakia lehen planoan ipintzen du, eta garapen iraunkorra eta berrikuntza soziala, ingurumenekoa eta teknologikoa bultzatzen ditu».



EUROPA 2020 estrategia

Iturria: «UE 2020» etorkizuneko estrategiari buruzko kontsulta-batzordearen lan-dokumentua

http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/eu2020_es.pdf

EUROPA 2020 estrategiako lehentasun nagusiak

Merkatu iraunkorreko **gizarte-ekonomia** adimentsuagoa eta ingurumena gehiago errespetatzen duena errealitate bihurtzeko, Europak funtsezko lehentasunak —adostuta finkatuak— sustatu behar ditu eta hainbat urtetan burutzeko asmoz lan egin behar du. Estatu kide bakar batek ere ezin dizkio berak bakarrik erronka hauei aurre egin.

Bestalde, EBaren politika ere ez da hogeita zazpi politika nazionalen batura. Helburu komun batekin elkarrekin lan egitean, osotasuna aldean batura soila baino gehiago izango da. Programa honek Estatu kide guztiei eragiten die, handiei eta txikiei, zaharrei eta berriei, oso garatuei eta garatzeko bidean daudenei: EB zabalduan garapen-maila diferenteak daudenez beharrak ere diferenteak dira.

Hala ere, UE 2020ren ikuspegi estrategikoa egokia da bakoitzarentzat, eta abiapuntu diferentetara eta berezitasun nazional diferentetara egokitu daiteke, guztiei garatzen laguntzeko moduan.

Partikularrentzako eta enpresentzako aukera ugari zabaltzen dira, baldin eta haiek aprobetxatzeko moduan baldin badaude. Batzordearen helburua da Europak lidergotza edukitzea, ezagutzen oinarritutako ekonomia gisa lehiatzea eta aurrera egitea, konektatua, ingurumena gehiago errespetatuko duena eta inklusiboagoa, azkar eta modu iraunkorrean hazteko, eta enpleguko eta gizarte-aurrerapeneko tasa altuak sortzeko gai izango dena.

Horretarako, Europak industria-oinarri sendoa eta lehiakorra, zerbitzuen sektore modernoa, eta landa-ekonomia eta itsas-sektore oparoak eduki behar ditu. Etorkizuneko gizarte honen eraikuntzaren aitzindari gisa, produktu berritzaile eta lehiakorren garapenaz, etorkizuneko azpiegituren hedapenaz, merkatu berrietan sartzeaz eta kalitatezko enplegu berrien sorkuntzaz etekina atera dezake Europak.

Baina onurak askoz ere haratago joango dira. Mundura irekitako Europa batek besteentzako eredu bat izaten jarraituko du, bere balioak hedatuz eta mundu osoan lanaren, ingurumenaren eta segurtasunaren esparruetan arau zorrotzagoak hartzen lagunduz.

Era horretan, EBak mundu-mailan bere buruzagitza erakutsi ahal izango du —esparru politiko zuzena ezarri ondoren eta Lisboako Itunean aurreikusitako agente eta egitura berriak osorik erabiliz—, dinamismo ekonomiko iraunkorra ziurtatzeko behar den irekitasuna gure herritarren kezka sozialekin eta ekologikoekin uztartu daitekeela frogatuz.

Batzordearen iritziz UE 2020 estrategiaren faktore nagusiek tematikoak izan behar dute eta ondorengo lehentasun hauetan oinarritu behar dira:

- 1) **Balioa sortu, hazkundera ezagutzen oinarrituz.** Berrikuntzak —produktuetan zein prozesuetan— diferentzia erakusten duen mundu batean, aukerak eta gizarte-kohesioa indartu egingo dira, hezkuntzak, ikerketak eta ekonomia digitalak eskaintzen duten indarra aprobetxatuz.
- 2) **Gizarte inklusibotan herritarren papera indartu.** Sormena eta berrikuntza bizkortuko dituzten gaitasun berriak eskuratzea, enpresa-izpirituaren garapena eta enpleguen arteko iragate arina funtsezko elementuak izango dira, egokitzeko ahalmen handiago baten truke enplegu gehiago eskainiko dituen mundu batean.
- 3) **Ingurumena gehiago errespetatzen duen ekonomia lehiakorra eta konektatua sortu.** EBak gai izan behar du modu eraginkorragoan lehiatzeko eta, baliabide eta energia berriztaezin gutxiago kontsumituz, produktibitatea hobetzeko, modu eraginkorragoan eginez. Hori guztia, prezioak altuak izango diren eta haiek lortzeko lehia gero eta handiagoa izango den mundu batean.

Era horretan hazkundera suspertuko da eta ingurumenarekiko gure helburuak lortzen lagunduko da. Horrek ekonomiaren arlo guztiei onurak ekarriko dizkie, manufaktura-industria tradizionaletatik sortzen ari diren goi-mailako enpresetaraino.

Azpiegituren modernizazioak eta interkonexioak, administrazio-karga murrizteak eta merkatuan berrikuntzak azkarrago sartzeak ere helburu hori lortzen lagunduko dute.

Lehentasun horiek EBaren jarduera politikoa bideratuko dute bere mugen barruan eta kanpoan. Nazioarteko lankidetzaren eta gobernantza aldeaniztunaren —bereziki, nazioarteko sistema komertzial eta finantzario eraginkorrak, bidezkoak eta arautuak— sustapena UE 2020 strategiaren zati izango da. Batzordeak, ondorengo lehentasunei buruzko iritziak jaso nahi ditu, bere ustez horiek baitira UE 2020 strategiaren eragile nagusiak.

“Gizarte Ekonomia, Europar Batasunaren etorkizunerako enpresa-eredu bat” Madrilgo adierazpena

Iturria: “Gizarte Ekonomia, Europar Batasunaren etorkizunerako enpresa-eredu bat” Madrilgo Adierazpena, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa. 2017ko maiatzak 23.

Estatu kideek eta Europako erakundeek badakite gizarte-ekonomiak zenbateko garrantzia duen eta sektorearekiko konpromisoa adierazi dute “Gizarte-ekonomiaren potentziala askatu, EB hazteko” Erromako estrategiaren bitartez (2014ko azaroak 18). Konpromiso hori ere erakutsi dute GECESen “Gizarte-ekonomiaren eta sektore honetan jarduten duten enpresen etorkizuna” 2016ko Txosten Nagusian jasotako gomendioak kontuan hartuta.

Testuinguru horretan, “Gizarte-ekonomiako enpresentzako ekosistema zabalago baterako ibilbide-orria” delako Luxenburgoko Adierazpena (2015eko abenduak 4) mugarri bat da, balio komunetan oinarritutako gizarte-ekonomiako politikak sustatzeko Luxenburgoren, Frantziaren, Italiaren, Eslovakiaren, Esloveniaren eta Espainiaren arteko akordioa sinatu ondoren.

Ahalegin horiek jarraipena izan zuten, lehen aipatutako Estatu kideez gain Ziprek, Errumaniak, Txekia Errepublikak eta Greziak sinatutako “Gizarte-ekonomia, EBan eta munduan gaur egungo gizarte-erronkei erantzun eraginkorrek ematen funtsezko aktore gisa” Bratislavako Adierazpenean (2016ko abenduak 1). Ljubljano Adierazpenaren (2017ko apirilak 25) helburua da EBaren eta Europako hego-ekialdearen arteko lankidetzaren sendoa eta egituratuagoa lortzea. Eskualde-mailan gizarte-ekonomiako erakundeen sare bat sortzearen alde agertzen da. Halaber, migrazioaren eta errefuxiatuen inguruan agertzen ari diren erronkei aurre egiteko prozesuan gizarte-ekonomiako enpresentzako ekosistema bat sortzeko Europar Batasunak eta Europako hego-ekialdeko herrialdeek neurri egokiak hartu behar dituztela finkatzen du.

Gaur egun, Europan gizarte-ekonomiako 2 milioi enpresa daude, eta 14,5 milioi pertsona baino gehiagori ematen diete lana —EB-27ko langile guztien % 6,5 eta EB-151ko % 7,4—, eta EB-2ren BPGd-aren % 8 ordezkatzen dute.

Kapitalaren gaitetik pertsonak eta helburu soziala jartzea, gobernantza demokratikoa eta/edo parte-hartzailea, enpresaren epe luzeko iraunkortasuna ziurtatzeko irabazi gehienak berriro inbertitzea, zerbitzuak bertako kideei eta tokiko komunitateei eskaintzea bezalako gizarte-ekonomiaren balio komunak aktiboki laguntzen dute gizarte-kohesioan eta, beraz, hazkunde berritzaile, adimendun, iraunkor eta integratzaile batean; Europan kalitatezko enplegua sortzen laguntzeaz gain.

Aurreko adierazpenak kontuan hartuta, Estatu kide sinatzaileek:

1. Elkar ulertzeari buruz aurreko adierazpenetan jasotako gomendioei emandako babes berresten dute, baita gizarte-ekonomiaren forma diferenteen babes ere, merkatu bakarrean gizarte-ekonomiako enpresen berezitasunak kontuan hartzeko eta sustatzeko beharraren inguruan, eta gizarte-ekonomiako enpresak babestearen eta barne hartzearen inguruan —programen, proiektuen eta funtsen bitartez, eta finantza-ekosistema egoki baten garapen berritzaile eta iraunkorra burutuz—.

2. Kontu satelliteak garatzeko eta ezartzeko —oro har onartutako nazioarteko ereduak jarraituz— garrantzia azpimarratzen da, gizarte-ekonomiako enpresek Europar Batasunean gizarte-kohesiorako hazkunde ekonomikorako egiten duten ekarpen eraginkorra zehazteko eta erakusteko.
3. Ekintzailtza babesten duten politika nazionalak eta europarrek gizarte-ekonomiaren ereduak kontuan hartu behar dituztela bat datoz. Era horretan, enplegu inklusibo bat eta gizarte bidezkoagoa, zuzenagoa eta iraunkorragoa sortzeko formula gisa erabiltzeko.
4. Euren ustez, hezkuntzako, prestakuntzako eta lanbide-gaitasuneko jardueretan gizarte-ekonomiaren parte-hartzea sustatu behar da, konpetentziak eta bizitza osoko prestakuntza eskuratzeko. Halaber pentsatzen dute, ekintzailtza gizarte-ekonomiaren formulen barruan sartu eta sustatzeko aukera aztertu behar dela, hezkuntzako etapetako ikasketa-planen artean.
5. Politiketarako goi-mailako koordinazioko mekanismo komunak eta gizarte-ekonomiaren aldeko neurriak sustatzeko, eta Estatu kideen artean jada badauden mekanismoetan sakontzeko gogoia adierazi dute. Mekanismo horiek aldebikoak (adibidez, Portugalen eta Espainiaren arteko elkarlanean), alde askotarikoak (adibidez, Luxenburgoko Adierazpenaren Jarraipen Batzordea) edo EBtik kanpoko herrialdeekin sortutakoak (Europako hego-ekialdeko herrialdeekin edo herrialde iberoamerikarrek edo Mediterraneoaren hegoaldekoekin eskualde-mailako elkarlana, adibidez) izango dira.
6. Europako Batzordeari 2018ko laneko planean 2018-2020 Ekintza Plan Europar bat —modu egokian finantzatua— sartzeko eskatzen diogu, Europar gizarte-ekonomiaren enpresak eta gizarte-berrikuntza sustatu ditzan. Ekintza-plan horrek herritar guztien gizarte-kohesioa eta garapen ekonomikoa eta soziala landu beharko lituzke, sektore xume eta ahulak nabarmenduz, eta gizarte-ekonomian diharduten aktore guztiak barne hartu beharko lituzke —ekintza espezifiko sistematikoen bitartez—.
7. Europako Batzordea gizarte-ekonomiaren papera eta bere balio ekonomikoak eta sozialak indartzera gonbidatzen dugu, kontuan hartuta Gizarte Eskubideen Europako Oinarrian bildutako printzipioak, eta EBaren gaur egungo gizarte- eta lan-erronkei aurre egiteko gizarte-ekonomiako enpresen ekarpen positiboa Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuriarekin (COM (2017) 2025, 2017ko martxoaren 1ekoa) bat etorritz.

Horrek guztiak, gizarte-ekonomiako enpresen nazioartekotzearekin, garapenerako nazioarteko lankidetzarekin eta Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzearekin lotutako Europar Batasunaren politketan gizarte-ekonomiako enpresak sustatzeko eta garatzeko helburua izango du.

4.3. Gizarte Ekonomiaren esparru nazionala

Iturria: 5/2011 Legea, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa.

Gaur egun Gizarte Ekonomiak askoz ere irismen handiagoa dauka, eta Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legean definituta dago. Bertako 4. eta 5. artikuluetan bere jarduerarako eta Gizarte Ekonomiako erakundeentzako printzipio orientatzaileak definitzen dira.

4. artikulua. Printzipio orientatzaileak.

Gizarte-ekonomiako erakundeek ondorengo printzipio orientatzaile hauetan oinarrituta dihardute:

- a) Kapitalaren gaineratik pertsonak eta gizarte-helburua nagusitzea. Hori kudeaketa autonomo eta garden, demokratiko eta parte-hartzailean zehazten da. Ondorioz, erabakiak hartzeko garaian, gizarte-kapitalari egindako ekarpenak baino gehiago, pertsonak eta erakundeari emandako zerbitzuak eta lanean egindako ekarpena, edo gizarte-helburua hartzen dira kontuan.
- b) Jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak, batez ere, bazkideek edo bertako kideek egindako jarduera edo zerbitzuaren eta eskainitako lanaren eta, hala badagokio, erakundearen xede den gizarte-helburuaren arabera aplikatzea.
- c) Tokiko garapenaren konpromisoa, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa, gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen, norberaren, familiako eta laneko bizitza bateragarri egiten lagunduko duen barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea.
- d) Botere publikoekiko independentzia.

5. artikulua. Gizarte-ekonomiako erakundeak.

1. Gizarte-ekonomiaren zati dira **jarduera ekonomikoa burutzen duten kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta elkarteak, gizarteratze- eta laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak, arrantza-kofradiak, eraldatzeko nekazaritza-elkarteak eta aurreko artikuluan finkatutako printzipioek zuzenduko dituzten arau espezifikoek bitartez sortutako erakunde bereziak.**
2. Halaber, gizarte-ekonomiaren barne sartu ahal izango dira ekonomia- eta enpresa-jarduera burutzen duten erakundeak, badin eta erakunde horien funtzionamendu-arauek aurreko artikuluan aipatutako printzipioak betetzen badituzte eta Lege honetako 6. artikuluan finkatutako erakundeen katalogoaren barne hartzen badituzte.
3. Dena den, gizarte-ekonomiako erakundeak euren funtsezko arau espezifikoek arabera erregulatuko dira.
4. Ekonomia Interes Orokorreko Zerbitzuen erakunde mailegatzaille aitortzen dira Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze eta Laneratze Enpresak —euren araudi erregulatzaileraren arabera hala eratuta eta kalifikatuta badaude—. Halaber, arauz finkatzen denaren arabera, baztertzeko arriskuan dauden kolektiboen laneratzea helburu duen gizarte-ekonomiaren beste edozein erakundetara zabaldu ahal izango da adierazpen hori.

4.4. Kooperatibismoa, erreferentzia-marka Euskadin.

4.4.1. Gizarte-ekonomia datutan.

Iturria: GEEB eta Lan eta Justizia Saileko Euskal Ekonomia Sozialaren Estatistika

ERAKUNDEAK

	EAEko Ekonomiako enpresen eta Gizarte Ekonomia Nagusiko erakundeen kopurua 2012-2016				
	2012	2013	2014	2015	2016
KOOPERATIBAK	1.533	1.536	1.532	1.555	1.599
LAN SOZIETATEAK	709	674	659	644	623
ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK	9	11	12	13	13
LANERATZEKO ENPRESAK	45	46	45	46	44
Aldea	-% 1,71	-% 1,26	-% 0,84	% 0,44	% 0,93
EAE-KO EKONOMIA	161.626	157.405	155.306	155.121	154.687
Aldea	-% 0,02	-% 2,61	-% 1,33	-% 0,12	-% 0,28
Ordezkaritza	% 1,42	% 1,44	% 1,45	% 1,46	% 1,47

ENPLEGUA

	Enplegua Gizarte Ekonomia Nagusian eta EAEko Ekonomia 2012-2016				
	2012	2013	2014	2015	2016
GIZARTE EK. NAGUSIA GUZTIRA	71.063	70.662	70.958	72.196	73.275
Aldea	-% 2,22	-% 0,56	% 0,42	% 1,74	% 1,49
EAE-KO EKONOMIA	873.121	855.093	849.335	843.816	854.114
Aldea	-% 1,91	-% 2,06	-% 0,67	-% 0,65	% 1,22
Ordezkaritza	% 8,14	% 8,26	% 8,35	% 8,56	% 8,58

Gizarte Ekonomia Nagusia: KOOPERATIBAK, LAN SOZIETATEAK, ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK, LANERATZE ENPRESAK
 KOOPERATIBEN ETA LAN SOZIETATEEN **iturria:** Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Enpleguko Estatu Idazkaritza. Lan Autonomoko, Gizarte Ekonomiako eta Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza Nagusia,

Enplegu Zentro Berezien **iturria:** EHLABE
 Laneratze Enpresen **iturria:** GIZATEK

	Enplegua Gizarte Ekonomia Nagusian eta EAEko Ekonomia 2012-2016				
	2012	2013	2014	2015	2016
KOOPERATIBAK	56.365	56.251	55.958	56.380	57.815
LAN SOZIETATEAK	7.275	6.519	6.679	6.758	6.876
ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK	6.786	7.231	7.746	8.421	7.462
LANERATZEKO ENPRESAK	637	661	575	637	1.122
Aldea	-% 2,22	-% 0,56	% 0,42	% 1,74	% 76,14
EAE-KO EKONOMIA	873.121	855.093	849.335	843.816	854.114
Aldea	-% 1,91	-% 2,06	-% 0,67	-% 0,65	% 1,22
Ordezkaritza	% 8,14	% 8,26	% 8,35	% 8,56	% 8,58

2016an Gizarte Ekonomia Nagusiko erakundeen guztizko kopuruak aurreko urtean erregistratutako joera positiboarekin jarraitzen du. Aurreko urtearekiko igoera ia % 1ekoa izan da.

Joera positibo horrekin batera, beste urte batez, Euskal Autonomia Erkidego osoan emandako enpresen kopuruaren beherakada gertatu da. Ondorioz, Gizarte Ekonomiako erakundeen ordezkariak gero eta gehiago % 1,50era hurbiltzen ari da.

Beste urte batez, Gizarte Ekonomia Nagusiko erakundeak enplegu-kopurua handitzeko gai izan dira. 2016. urtean iaz baino ia % 1,50 gehiago (% 1,49 zehazki) erregistratu da. Krisia hasi zenetik jada hirugarren urtez jarraian sektorea enplegu gehiago sortzeko gai da (2013 eta 2016 urteen artean enplegua % 3,70 hazi zen).

2016. urtearekin alderatuta, Kooperatibak % 2,55 hazi dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako enpleguaren guztizkoaren % 79 suposatzen dute. Gizarte Ekonomia osoko erakundeen % 70 ordezkatzeko gai eta euren indarra erakusten jarraitzen dute. Izan ere, azken hamarkadan bere kopuruak handitu dituen enpresa-formula da.

Lan-sozietateak % 1,75 hazi dira 2015arekiko. Langileen kopuruak pixkanaka gora egiten duen hirugarren urtea da jarraian. EAEn zabalik jarraitzen duten lan-sozietateak enpresa-egitura sendo bat erakusten ari direla azpimarratu behar da, gero eta lanpostu gehiago sortzeko gai direlako, enpresen kopuruak behera egiten jarraitzen duen bitartean.

Gizarte Ekonomia Nagusiko erakundeen kopuruak gora egin du 2016an, krisia hasi zenetik urtetik urterako hazkuntza handiena erregistratu duen urtean (% 2,83). 2016an, EAEko kooperatibetako langileen kopurua % 2,55 hazi da. Ondorioz, erregistratutako kopuru altuenera hurbiltzen da (2007. urtekoa, 58.238 langilerekin) eta, era berean, 2008ko enplegu-maila gainditzen du.

Laneratze-enpresak ere positiboki nabarmentzen dira. Erakunde horietan enplegua % 76 baino gehiago hazi da urte bakarrean. Horrek, 2010ean (783 pertsona enplegatzen zituenean) aurkeztu zen datu onena nabarmen hobetu du. Enplegu Zentro Bereziak, bestalde, negatiboki nabarmentzen dira, bertako erakundeek 2016an % 11 enplegu inguru gutxiago erregistratu dutelako.

2015-2016 urteen artean EAEko ekonomian enplegua % 1,22 hazi da. Hori albiste ona da, 2009az geroztik enplegua galtzen ari zelako. Gizarte Ekonomia Nagusiaren enpleguaren igoera erlatibo handiagoaren ondorioz, beste urte batez, EAEko enpresetako guztizkoaren gaineko enpleguaren pisuak gora egiten jarraitzen du, % 8,58n kokatuz.

Azpimarratu behar da enpresa guztien % 1,50 baino gutxiago izanik, Gizarte Ekonomia Nagusiko erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguaren % 8 baino gehiago biltzen dutela.

BEGd

	Gizarte-Ekonomiaren BEG				ITURRIA: BALIO ERANTSI GORDINA
	2013	2014	2015	2016	
Kooperatibak	2.190.377.848	1.084.816.265	2.002.624.725,05	2.167.578.540,47	HIRU FORU-ALDUNDIETAKO OGASUNAK
Lan Sozietateak	249.062.000	e.e.	256.243.000	e.e.	BIURTEKO TXOSTENA. EUSKO JAURLARITZA
Enplegu Zentro Bereziak	130.491.153,02	135.166.899,74	159.299.818,80	179.941.612,60	EHLABE (ERAKUNDE KIDEAK)
Gizarteratze Enpresak	17.936.360,13	17.082.167,42	14.359.541,16	15.950.697,52	EHLABE (ERAKUNDE KIDEAK)
Eraldaketarako Nekazal Erakundeak	5.312.731	e.e.	8.023.843	e.e.	BIURTEKO TXOSTENA. EUSKO JAURLARITZA
Arrantzale Kofradiak	4.009.580	e.e.	2.330.840	e.e.	BIURTEKO TXOSTENA. EUSKO JAURLARITZA
Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak	227.739.331	e.e.	10.077.778,75	e.e.	BIURTEKO TXOSTENA. EUSKO JAURLARITZA
Elkarrekiko Berme Erakundeak	378.000	904.000	897.000	930.000	OINARRI SGR
Elkarteak	114.248.935	e.e.	44.587.734	e.e.	BIURTEKO TXOSTENA. EUSKO JAURLARITZA
Fundazioak	361.170.506	e.e.	266.926.686	e.e.	BIURTEKO TXOSTENA. EUSKO JAURLARITZA

2013tik 2015era Gizarte Ekonomiako Erakundeek sortutako Balio Erantsi Gordinak aldaketa handia jasan du urte batetik bestera. Hala, 2015eko datuak 2012an lortutakoak baino % 10 txikiagoak direla ikusi dugu. Hau da, Gizarte Ekonomiako erakundeek, oro har, urtean 2012an sortutakoa baino % 10eko balio erantsi txikiagoa sortu zuten. Indize honi dagokionean, urte gogorrena 2013a izan da; izan ere, 2014an eta 2015ean joera goranzkoa izan bada ere, ez da 2012ko mailetara iritsi.

Gizarte Ekonomiako Erakunde motaren arabera Balio Erantsi Gordinaren bilakaerari dagokionean, aurreko analisietan bezala, Balio Erantsi Gordina murriztu duten erakundeak, mantentzeko gai izan direnak eta handitzea lortu dutenak aurkitzen ditugu.

Balio Erantsi Gordina murriztu dutenen artean, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak azpimarratzen ditugu —emaitza % 96 murriztu dute—, ondoren datoz Elkarrekiko Erakundeak —% 61eko murrizketa—, Arrantzale Kofradiak —% 52ko murrizketa—, Fundazioak —% 26ko murrizketa— eta, azkenik, Laneratzeko Enpresak daude —Balio Erantsi Gordina % 11 murriztu dute—. Erakunde horiek guztiek Balio Erantsi Gordinaren bolumenaren % 12 osatzen dute.

Kooperatibek eta Lan Sozietateek Balio Erantsi Gordina mantentzea lortu dute. Datu interesgarria da, Gizarte Ekonomiako bi Erakunde mota hauen balioa Gizarte Ekonomia osatzen duten erakunde guztiek sortutako Balio Erantsi Gordinaren ia % 82 delako.

Elkarren bermerako sozietateek (% 246), Eraldaketarako nekazaritza-sozietateek (% 151) eta Enplegu-zentro bereziek (% 138) 2012ko Balioarekiko Balio Erantsi Gordina handitu ahal izan dute. Erakunde horiek Balio Erantsi Gordinaren guztizko bolumenaren % 6 ordezkatzen dute.

Aurkeztutako datuak kontuan hartuta esan dezakegu Gizarte Ekonomiako Erakunde batzuetan Balio Erantsi Gordina asko jaitsi den arren, zenbaketa orokorrean eragin handien dutenak mantendu egin direla.

4.4.2. EKGK-Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua

Iturria: EKGK 2015 Memoria

CSCE-EKGK otsailaren 11ko 1/1982 Legeak, Euskal Herriko Kooperatibei buruzkoak, sortu zuen, eta formalki 1983ko urtarrilaren 28an eratu zen. Kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko topaketa-organoa da, eta Euskadiko herri-administrazioen aholkularia kooperatibismoari buruzko gai guztietan. Halaber, balio eta printzipio kooperatiboak bere gain hartu, horien alde egin, sustatu eta zabaltzen ditu.

CSCE-EKGKk garatzen dituen jarduerak ondorengo arlo hauen arabera antolatzen dira, bertako arau erregulatzailerik agindutako funtzioen izaera kontuan hartuta:

Administrazioarekin elkarlana eta kontsulten arreta, derrigorrezko txostenak luzatzeko administrazio-jarduketan bidez, kooperatiba-sozietateak iraungitzeko espedienteak, eta Kooperatiben Erregistroaren aurrean eskatutako kontsultetan zein Kontseiluaren aurrean egiten diren kontsulta juridikoen arretan elkarlana.

Kooperatibismoaren sustapena, alde batetik, jarduketa zuzenen bitartez edo erakunde laguntzaileekin (EAEko Unibertsitateetako Azterketa Kooperatiboen Erakundeak eta Elkarte Kooperatiboen Erakundeak) hitzarmenak eginez eta, bestetik, eratutako estaldura-erakundeen bitartez. Bertan, Kontseilu honetaz gain, Euskal Kooperatiba Mugimenduko beste erakunde batzuk biltzen dira jarduketa estrategikoko esparru desberdinetan, hala nola, kooperatiba berriak sustatuz (Elkar-Lan S.Coop.) eta finantza-abalak emanez (Oinarri EGE).

Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua. Arbitraje, bateratze eta bitartekaritzako prozeduren tramitazioaz arduratzen da, baita gatazken prebentzioarekin lotutako kontsulten arretaz ere.

4.4.3. Konfekoop

Iturria: Konfekoop 2016 memoria

KONFEKOOP, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa 1996an eratu zen, 1993ko Kooperatiben Legeak ordezkari eta garapenerako erakunde unitario bat aurreikusi ondoren. Hasieran 6 federaziok osatzen zuten, baina sinergiak aprobetxatzeko eta zerbitzuak bateratzeko asmoz, 2006an hainbat federaziok bat egiteko prozesua hasi zen. Hortaz, prozesuaren ondorioz 3 federaziok osatzen dute Konfekoop: Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioak, Euskadiko Garraiolari Kooperatiben Federazioak eta Erkide – Euskadiko Lan Elkarteak, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioak.

KONFEKOOPek Euskadiko kooperatibak erakundearen aurrean ordezkatzeko jardura betetzen du, erakunde publikoen aurrean haiek ordezkatzuz eta sustatuz, eta Kooperatibismoa euskal gizartearen sustatuz eta hedatuz. Euskal kooperatibismoa etorkizuneko errealitate batean proiektatzera bideratutako ekintzak, kooperatibismoa ekonomiari eta alderdi sozialari dagokienean parekatuta hazteko.

2016ko abenduaren 31n 1.110 kooperatiba federatu daude. Ondorengo taulan ikus daitezkeen moduan, Kooperatiba federatu mota nagusia Elkarlanekoa da, kooperatiba mota guztien % 85 dira.

Kooperatiba mota	Kop.
Elkarlanekoa	949
Irakaskuntzakoak	82
Nekazaritzakoak	64
Kontsumokoak	8
Garraiolarienak	6
Kreditukoak	1

Produktzio-sektoreari dagokionean, Hirugarren sektorea edo Zerbitzuena azpimarratzen dugu, % 58tik gorako ordezkariarekin, guztira 645. Bigarren Sektorea edo Eraldaketarena bigarren lekuan dago, eta Kooperatiba federatuen % 40 inguru ordezkatzeko du. Azkenik, Lehen sektoreko edo zuzeneko produktuko 17 kooperatiba daude, guztien % 2 baino gutxiago.

Produktzio-sektoreen arabera	Kop.
Lehen sektorea edo produktu zuzenarena	17
Bigarren sektorea edo eraldaketakoa	448
Hirugarren sektorea edo zerbitzuena	645

Kooperatiba federatuetan 53.496 pertsonak lan egiten dute; horietatik 33.812 bazkide langileak dira —% 63 inguru— eta 19.684 langile ez-bazkideak —% 37 inguru—. Hortaz, kooperatiba horiek bazkideei lana ematen badiete ere, langile ez-bazkide askori ere lana ematen diete.

Langileak guztira	Kop.
Langile bazkideak	33.812
Langile ez-bazkideak	19.684

Langileak guztira	Kop.
Gizonak	25.571
Emakumeak	27.925

Kooperatiba federatuetan gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna, langile-kopuruari dagokionean, azpimarratu behar dugu, adierazle horrek kooperatibetan duen eragin positiboagatik, bai kooperatiben garrantzi ekonomikoagatik eta sozialagatik, bai gizartean, oro har, duten eragin positiboagatik.

4.4.4. Elkar-lan

Iturria: Elkar-lan 2016 memoria

ELKAR-LAN S. COOP. bigarren mailako kooperatiba bat da, eta kooperatiba-enpresak sustatzea, eta ondorioz, kooperatiba-enplegua sortzea eta garapen ekonomiko eta sozialari laguntzea du xede. Beste hainbaten artean, sozietate-konfigurazio kooperatiboaren pean egin nahi den edozein enpresa-proiekturen gaineko orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu.

2016. urtean ELKAR-LANek 153 kooperatiba berri abian jartzen lagundu du. Horietatik 150 berriak dira eta 3 sozietate, berriz, ELKAR-LANen laguntzarekin kooperatiban eraldatu dira.

LURRALDE HISTORIKOA TERRITORIO HISTÓRICO	KOOPERATIBAK COOPERATIVAS
ARABA	19
BIZKAIA	84
GIPUZKOA	50

Abian jarritako 153 kooperatiba berrien lurralde historikoen arabera banaketari dagokionean, Bizkaia buruan dago 84rekin, ondoren Gipuzkoa dator 50ekin eta, azkenik, Araba aurkitzen dugu 19 kooperatibekin.

MOTA CLASE	KOOPERATIBAK COOPERATIVAS
LAN ELKARTUA / TRABAJO ASOCIADO	140
LAN ELKARTU MISTOA / TRABAJO ASOCIADO MIXTA	2
LAN ELKARTU PROFESIONALA / TRABAJO ASOCIADO PROFESIONAL	2
GIZARTE EKIMENeko LAN ELKARTUA / TRABAJO ASOCIADO INICIATIVA SOCIAL	2
ETXEBIZITZAK / VIVIENDAS	6
IRAKASKUNTZA / ENSEÑANZA	1

Lan elkartuko kooperatibak dira gehien sortu direnak, gainerakoekiko alde handiarekin; izan ere, kooperatiba berrien % 90 baino gehiago mota honetakoak dira.

Emaitzak 2016




153 Kooperatiba eratu dira

Horrez gain, Elkar-Lan 92 ekintzaile talderekin aritu da lanean, horiek azkenean hainbat arrazoiengatik euren empresa eratzea lortu ez badute ere. Beste 7 ekintzaile-taldeko sozietate mugatuak eratu dituzte.

Elkar-Lan - Edificio Albia II, San Vicente, 8-9º Izda. (BILBAO) - 944 703 760 - elkarlan@elkarlan.coop - www.elkarlan.coop

Kooperatiba moten araberako banaketa 2016

146 Lan elkartukoak
7 Beste batzuk
6 Etxebizitzanak
1 Hezkuntza Integrala



Elkar-Lan - Edificio Albia II, San Vicente, 8-9º Izda. (BILBAO) - 944 703 760 - elkarlan@elkarlan.coop - www.elkarlan.coop

LURRALDE HISTORIKOA TERRITORIO HISTÓRICO	LANPOSTUAK EMPLEOS
ARABA	51
BIZKAIA	309
GIPUZKOA	202
GUZTIRA / TOTAL	562

153 kooperatiba berrietan 562 lanpostu sortu dira guztira. Beraz, batezbeste sozietate bakoitzak 3,47 enplegu sortu ditu. Bizkaian sortu dira lanpostu gehien, ondoren Gipuzkoan eta, azkenik, Araban.

Hala ere, kooperatiba bakoitzeko sortutako lanpostuen zerrendaren buruan Gipuzkoa dago 4 lanpostu baino pixa bat gehiagorekin; ondoren Bizkaia dago, 3,68 lanposturekin eta, azkenik, Araba 2,68 lanposturekin.

Eratutako kooperatibak lurraldeka 2010-2016






2010
2011
2012
2013
2014
2015
2016

ARABA BIZKAIA GIPUZKOA

Elkar-Lan - Edificio Albia II, San Vicente, 8-9º Izda. (BILBAO) - 944 703 760 - elkarlan@elkarlan.coop - www.elkarlan.coop

Lanpostuak guztira 2016

562 LANPOSTU
309 BIZKAIA
202 GIPUZKOA
51 ARABA

Elkar-Lan - Edificio Albia II, San Vicente, 8-9º Izda. (BILBAO) - 944 703 760 - elkarlan@elkarlan.coop - www.elkarlan.coop



4.4.5. Mondragon taldea. Euskadiren erreferentea

Iturria: 2017 Humanity at Work Memoria. 2016 Web Memoria

MONDRAGON taldea 1956an hasitako kooperatiba-mugimenduaren emaitza da. Urte horretan, izen bera duen Gipuzkoako herrian lehen industria-kooperatiba sortu zen. Bere enpresa-filosofia bere balio korporatibotan jasota dago.

- Lankidetzeta.
- Partaidetzeta.
- Erantzukizun soziala.
- Berrikuntza.

Nazioarteko merkatuan lehiatzen duen enpresa-erakunde baten oinarriko helburuak honakoei lotzen die **MONDRAGON**en misioak: sozietate-antolamenduan metodo demokratikoak erabiltzea, enplegua sortzea, langileen garapen humano eta profesionala sustatzea eta inguruko gizartea garatzeko konpromisoaz jardutea.



Antolamenduari dagokionez, MONDRAGON lau arlo hauen arabera dago eratuta: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza. Egun, 100 kooperatiba autonomo independente baino gehiagok osatzen dute MONDRAGON eta lehen euskal enpresa taldea da, eta hamargarrena Espainian.

Mondragon Korporazioaren adierazle nagusiak.



Enpresa-garapena

MONDRAGON Taldea 1956an jaiotako mugimendu kooperatiboaren fruitua da. Urte horretan Ulgor Tailerrak —ondoren Fagor— sortu ziren, gure lurraldean sortutako lehen kooperatiba. Kooperatibareduaren lagina da enpresa-garapena, bere historian zehar lortutako emaitza ekonomikoak eta finantzarioak. Garapen ekonomikoa eta iraunkorra funtsezkoak dira gizarte- eta lurralde-garapenerako, edozein erakunde —unibertsitateetatik hasi eta zerbitzu publikoko erakundeetaraino— merkatu batean lehiatzen duen erakunde bat delako, bere bezeroekin eta, zalantzarik gabe, lehiakortasun batekin.

Azken urteetan, 2008tik gure ekonomian antzematen dugun mundu-mailako krisia eman arren, Mondragon taldea osatzen duten 268 erakundeek emaitza positiboak eta ekonomikoki eta finantzarioki oso onak erakutsi dituzte, merkatuaren errentagarritasunak eta sozietate kooperatiboarenak ez diren beste enpresa-kudeaketako eredu batzuen bidez lortutako emaitzak kontuan hartuta.

2016. urtean, 268 erakunderekin besterik ez 12 mila milioi euro baino gehiago fakturatu izanak esan nahi du, kooperatibismoaren babesean, urtero sozietate mugatu ezagun askok baino gehiago fakturatzeko duten erakundeak ditugula.

Aurten iaz baino inbertsio gehiago egin dira. Erakunde kooperatiboaren garapen ekonomiko iraunkorraren bitartez, gizarte-garapena lortzeak enpresa- eta kudeaketa-filosofia ekarri du, egokia gaur egungo merkaturako. Bertan, kooperazio, parte-hartze, erantzukizun zibil eta berrikuntzako balioek erakunde horien epe luzeko biziraupena ziurtatuko dute.

Enpresa-garapena

	2015	2016	% aldea
Guztizko sarrerak	12.110	12.033	-0,6
Guztizko salmentak (industria eta banaketa)	11.368	11.399	0,3
Inbertsio garbiak	317	457	44,2
Ebitda	1.122	1.031	-8,1
Laboral Kutxa bitartekaritza-baliabideak	18.753	19.619	4,6
LagunAro ondare-funtsa	5.798	6.325	9,1

Enplegua

Enplegarritasun-datuei dagokienean, ikus dezakegu lanpostuen batezbestekoa pixka bat jaitsi dela, pertsonalaren arabera bazkideen ratioaren ordezkartzari dagokionean, berriz, eragin pixka bat handiagoarekin, gutxienez industria-arloko kooperatibei dagokienean.

Era berean, genero-berdintasunari dagokionean ikus dezakegu emakume bazkideen ehunekoak behera egin duen arren, beherakada hori pertsonalaren gaineko bazkideen ratioan baino txikiagoa izan dela. Beraz, berdintasunari dagokionean urratsak ematen jarraitzen dugu.

Aurkeztutako datuetan azpimarra dezakegu kooperatiba-ingurunean lanaren kalitateak duen garrantzia. Ezbehar-kopurua horretarako adierazle garrantzitsua da, eta kopuru hori murriztu egin zen.

Enplegua

	2015	2016	% aldea
Batezbesteko lanpostuak	74.335	73.635	-0,9
Bazkideen %a industria-arloko kooperatibetako pertsonalaren gainean.	81,0	77,8	-3,8
Kooperatiben pertsonalean emakume bazkideen %a	43,0	42,9	-0,2
Industria-eremuko gorabehera edo ezbehar-kopuruko indizea	38,4	35,3	-8,2

Parte-hartzea

Sozietatearen gainean gizonetzkoen eta emakumezkoen langileen kontrol demokratikoa mantentzeko funtsezko alderdia den parte-hartzeak gora egiten jarraitzen du. Hortaz, ikus dezakegu langileen inplikazioak garrantzitsua izaten jarraitzen duela mozkinak zertarako erabili behar diren erabakitzeko garaian.

Parte-hartzea

	2015	2016	% aldea
Langile bazkideen kapital soziala	1.670	1.681	0,7
Bazkideen %a industria-arloko kooperatibetako pertsonalaren gainean.	810	810	0,0

Etorkizuneko apustua

Gaur egungoa bezalako merkatu dinamikoan eta aldakorrean, erakundearen jarraipen posiblea iragartzeko funtsezko adierazleetako bat da Ikerketara, Garapenera eta Berrikuntzara zuzendutako baliabideei dagokiena.

Industria arloan I+G arlora zuzendutako baliabideak murriztu diren arren, alderdi horretan Zentro Teknologikoen eta I+G arloko Unitateek duten garrantzia azpimarratzen dugu, zentrozen kopurua mantendu arren berritzeko ahalmena handitu dutelako ikertzaile berriak hartuz. Zalantzarik gabe jarraipenaren aldeko apustu argia.

Etorkizuneko apustua

	2015	2016	% aldea
Industria Arloko balio erantsiaren gaineko I+G arlora zuzendutako baliabideen %a	8,6	8,0	-7,1
I+G arloko unitateen eta zentro teknologikoen kop.	15	15	0,0
Ikerkizuneko kopurua gutxira	1,774	1.921	8,3

4.4.6. Lan Sozietateak

Iturria: ASLE 2016 Memoria

ASLE Euskadiko Lan Sozietateen Elkarte da eta 1982ko uztailan eratu zen irabazi asmorik gabeko erakunde gisa. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkagarritasun-maila duen Lan Enpresetako ugazaben elkarte pribatua da, eta, legez, kapital sozialaren gehiengo langileen esku eduki behar duten enpresen zerbitzura dago, legeak ezartzen dituen mugak errespetatuz.

ASLE existitzeko arrazoiaren oinarrian enpresa kideei babesa ematea dago, hauek Lan Sozietate gisa indartzeko eta epe luzean iraunkor izaten lagunduko dien euren lehiakortasuna handitzeko.

a) Enpresak eta enpleguak
(Eboluzioari buruzko datuak)

a) Empresas y empleos
(Datos de evolución)

LAN SOZIEATEEN EBOLUZIOARI BURUZKO DATUAK / DATOS DE EVOLUCIÓN DE SOCIEDADES LABORALES

ENPRESAK EMPRESAS	2011		2012		2013		2014		2015	
España / España	13.465		12.294		11.322		10.828		10.313	
Lan Soz. Euskadi SS.LL. Euskadi	762	5,7%	709	5,8%	674	5,9%	659	6%	644	6%
ASLE	295	39%	282	39%	282	41,8%	288	43,7%	298	46,3%

* 2014aren gaineko bariozioa / Variación sobre 2014
 España / España: -4,8%
 Euskadi: -2,3%
 ASLE: 3,4%

Aurreko taulan enpresen kopuruaren eboluzioa ikusten dugu, bai Estatuan bai Euskadin. Estatuan sozietateen kopurua 2011tik 2015era etengabe asko jaitsi den bitartean, Euskadin Lan Sozietateen kopuruak jaitsiera motelagoa izan duela azpimarratzen dugu, ordezkaritza mantentzera helduz.

Enpresak ixten ari diren testuinguru honetan, azpimarratu behar dugu ASLEko enpresek testuinguru negatibo honetan eutsi diotela, eta pixkanaka ordezkaritza handiagoa lortu dutela, 2011ko % 39tik 2015eko % 46,3ra pasatuz.

ENPLEGUAK EMPLEOS	2011		2012		2013		2014		2015	
España / España	74.438		68.648		63.472		63.536		64.484	
Lan Soz. Euskadi SS.LL. Euskadi	7.918	10,6%	7.233	10,7%	6.476	10,2%	6.648	10,5%	6.752	10,5%
ASLE	6.520	82%	6.250	86%	5.390	83,2%	5.510	82,8%	5.515	81,6%

*2014aren gaineko bariozioa / Variación sobre 2014
 España / España: 1,6%
 Euskadi: 1,5%
 ASLE: 0%
 EAE / CAPV: 1,8%

Enplegarritasunari dagokionean, 2011 eta 2013 urteen artean, analizatutako hiru arloetan langileen kopuruak behera egin duela ikusten dugu, eta 2014tik aurrera beherakada hori gelditzeko eta berriro lanpostuak sortzeko gai izan direla.

Gai horren inguruan ikusten dugu Euskadiko lan-sozietateentzako zein kideentzako erreferentzia-urtea 2012a dela, Estatuko datuekin alderatuta % 10,7ko eta % 86ko ordezkariarekin hurrenez hurren. 2015eko azken datuek erakusten dute Estatu-mailan hazkundera Euskadin eta enpresa elkartuetan baino handiagoa dela.

FAKTURAZIOA FACTURACIÓN	2011		2012		2013		2014		2015	
Enpleguak Empleos	6.520		6.250		5.390		5.510		5.515	
Fakturazioa guztira Facturación Total	548 M/€		556 M/€		560 M/€		578 M/€		591 M/€	
Esportazioak Exportación	155 M/€	28%	161 M/€	29%	167 M/€	29,8%	162 M/€	28%	156 M/€	26,4%
Ratioa Fakt/Pertsona Ratio Fact/Persona	84.000 €		88.960 €		103.896 €		104.900 €		107.162 €	

Aurretik aipatu dugun bezala, enpleguen kopuruak aldaketa negatiboa zein positiboa izan du. Aitzitik, fakturaziora dagokionean, etengabeko hazkundera ikusten da. Hazkunde hori txikiagoa da enplegarritasun-maila mantentzen ez den aldietan eta handiagoa 2013tik aurrera. Ondorioz, fakturazio/pertsona ratioa 2011. urtekoa baino handiagoa da.

Esportazioei dagokienean, 2013ra arte gora egin zutela ikusten da, beharbada garai horretan bizitako egoera ekonomiko zailari lotuta. 2014. urtetik aurrera zenbateko horrek behera egin du.

Lan Sozietateen ezaugarri nagusiak:

- Partaidetzako enpresa.
- Lan-sozietatea, lan-bizitzako proiektu bat.
- Sozietatea lanekoa izatearen jarraipenaren zerbitzurako ondarea, espekulazio-tratamenduetatik urrundua.
- Akzioen edo partaidetzen transmisioa.
- Mozkinak banatzeko politika.
- Sozietate-kontratua.
- Gizarte-bake ereduak.
- Kudeaketa aurreratuko ereduak.
- Lan-sozietatearen gobernantza ona.
- Etengabeko prestakuntza eta gaitasuna.
- Lidergoa lan-sozietatean.
- Lidergo partekatua.
- Lan-sozietatearen irudiaren transmisioa.
- Jabetza-zentzua indartzea.
- Lan-sozietatea enpresa-segidaren erantzun moduan.
- Lan-sozietatea eta erakunde sindikalak.
- Gizarte-ekonomiako enpresa.
- Balioak: gardentasuna, konpromisoa, lankidetzak, konfiantza eta gizarte-kohesioa.

5. EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAILEKIN ETA PLANEKIN ERLAZIOAK

Eusko Jaurlaritzaren barruan, Gizarte Ekonomiarekin lotutako sail asko daude:



Gizarte-ekonomia osatzen duten agenteen eta jardueren mapa zabala eta anitza da. Gizarte-ekonomiaren zati dira: Kooperatibak, Lan Sozietateak, Mutualitateak, Fundazioak eta jardura ekonomikoa burutzen duten elkarteak, Laneratze-enpresak, Enpleguko zentro bereziak, arrantzale-kofradiak, eraldatzeko nekazaritza-sozietateak eta arau espezifikoaren bitartez sortutako erakunde bereziak.

Gizarte-ekonomia kontzeptua zabala den arren eta enpresa eta sozietate mota asko barne hartzen baditu ere, GIZARTE EKONOMIAKO ZUZENDARITZATIK KOOPERATIBETAN ETA LAN SOZIETATETAN ESKUDUNTZA ZUZENAK DITUGU. Gainerako kompetentziak Jaurlaritzaren beste sail batzuetan daude, eta eurekin koordinazioaren eta parte-hartzearen arloetako erlazioa dugu.

Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren jarduketa-planak ez du Jaurlaritzaren beste Plan Estrategiko batzuek jada egiten dutena (kapitulu honetan aipatutakoak adibidez: Enplegu-plana, Industrializazio-plana, Nazioartekotze-plana edo Ekintzailtza-plana, etab.) barne hartzeko helbururik. Zuzendaritzak plan hauetan jardunez, guztietan parte-hartzea bilatzen du Gizarte Ekonomiaren interesak babesteko.

Euskadiko **hirugarren gizarte-sektorea (EHGS)** sustatzeko estrategia ere aipatu behar da. Sektor hori Enplegu eta Gizarte Politiketako Sails kudeatzen du Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak arautzen du. Estrategia horren helburua da Euskadiko hirugarren gizarte-sektoreak euskal gizarteari egiten dion ekarpena indartzea eta, bereziki, hark burutzen dituen interes orokorreko jarduerak; era horretan, EHGSaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta eta elkarlana indartzen da, baita sektore publikoarekin, oro har, eta beste agente batzuekin ere.

Hirugarren sektoreko entitateak lege horren bitartez araututa daude ondorengo artikuluko honetan:

2. artikulua.– Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak.

Lege honen ondorioetarako, honako ezaugarri hauek dituzten ekimen sozialeko erakundeek osatzen dute Euskadiko hirugarren sektore soziala: egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dute eta jarduera EAEn gauzatzen dute; eta euren helburu nagusia da inklusio soziala, garapenerako lankidetzeta eta zaugarritasun, bazterketa, ezberdintasun, babesgabetasun, desgaitasun edo mendetasun egoeran dauden pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateen eskubideen erabilera efektiboa sustatzea, esku-hartze sozialeko jardueren bitartez.

Estrategiaren jarduketak erakundeen eta sareen eta Eusko Jaurlaritzaren ekintzetan zentratzen dira, baita lankidetzan ere; dena den, beste erakunde batzuk edo beste eragile esanguratsu batzuk tartean dituzten beste jarduketa edo ekintza batzuk ere sartu ahalko dira, betiere sartzeko ados badaude. Eusko Jaurlaritzan, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, EHGS sustatzeko egiten dituzten ekintzak eta neurriak jasotzen dituen sailen arteko estrategia da; ekintza eta neurri horiek esku-hartze sozialaren eremuan egiten dira, baita jarduera ekonomikoaren eta hura garatzen duten erakundeen sustapenaren eremuan ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan, identifikatutako eremuetako batzuk Gobernu Ekintza antolatzeke antzeko prozesu batean daude edo planifikatuko dira XI. Legegintzaldian.

Plan honek planifikatzen duen epean zehar indarraldia luzatzen duten planak daude eta Eusko Jaurlaritzak beste batzuk onetsiko ditu. Hori oinarritzat hartuta, EEE 2020 eta 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaz gain, honako estrategia eta plan garrantzitsuak identifikatzen dira horiek lerrokatzeke asmoz eta horrela garatuko diren ekimenen lorpena optimizatzeko. Horren guztiaren oinarrian helburu estrategiko partekatuak daude, XI. Legegintzaldiaren Eusko Jaurlaritzak bere Gobernu Programan identifikatu dituenak, eta honako arloen inguruan taldekatu daitezkeenak:

GARAPEN EKONOMIKOA ENPLEGUA SORTZEKO MOTOR GISA

- 2017-2020 Industrializazio Plana: honen helburua euskal lehiakortasunaren indartzean sakontzen jarraitzea da, ondoko ekintza hauen bidez: enpresa-proiektu bideragarriren berregituratze eta biziraupena laguntzeko neurriak hartuz; industria-sarearen eskura dauden finantzaketa-iturri eta tresnen dibertsifikazioa eginez; eta laguntza-esparru bat ezarri, bere gaitasun eta beharrei egokitu, berrikuntza teknologikoa eta aukera-sektore berrienganako dibertsifikazioa pizten dituenak.
- Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020-Estrategia Basque Country Suspertze Ekonomikorako Estrategiaren beste atal bat da eta helburu hauek ditu: Euskadi bere osotasunean nazioartekotzea, hau da, Euskadiren irekiera munduan eta Euskadiren parte-hartze aktiboa globalizazio prozesuan laguntzea. Bertan, kanpo-ekintza instituzio-agenda edo gobernuaren ekintzen erreferente gisa ulertzen da, halaber, gizarte zibila berarena, honako arlo haueetan: enpresa, hezkuntza, osasuna, kultura, gizarte, ingurumena, euskal enpresa-sarearen nazioartekotasunak garrantzi berezia izanik.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2020. Horren xedea ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzea da euskal gizartean espezializazio adimentsuan oinarritutako ikerketa- eta berrikuntza-politika baten bidez eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Sistemaren eraginkortasuna hobetuz.
- Espezializazio Adimentsurako Euskal Estrategia (RIS3) 2020. Horrek fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak zehazten ditu lehentasunezko alor gisa 2014-2020 eperako, lurraldearekin lotutako beste 4 aukera-txokoez gain.
- Euskadiko Ekintzailtzarako Instituzioen Arteko Plana 2020. Horren helburua ekintzailtza era integralean laguntzea da gero eta proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta iraunkor gehiago sor eta haz daitezzen, bereziki etorkizuneko sektoreetan, Euskadin eraldaketa ekonomiko eta sozialeko etapa berri bat sortuz.
- Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020. Horren lehentasuna enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea da, gazteen laneratzea eta berregituratze-prozesutan murgilduta dauden sektoreetako langileen lan-birziklapena egiten lagunduz.

IKASKUNTZA ETA GAIKUNTZA, PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERAKO ETA LAN MERKATUAREN LEHIAKORTASUNERAKO FAKTORE GISA

- Lanbide Heziketako EAEko V. Plana 2018-2021. Lanbide Heziketa funtsezkoa da herrialde baten lehiakortasunean; izan ere, pertsonen gaitasunak eta ezagutzak hobetuz, giza kapitala eta haren enplegagarritasuna indartzea du xede. Horretarako, lanbide-profilak eta profil horiek lortzeko prestakuntza ekoizpen-sektoreen benetako eskarira ahalik eta gehien egokitu behar dira. Hori dela eta, V. Planak 2014-2016rako Lanbide Heziketako Euskal Planean sakonduko du. Plan horrek Lanbide Heziketa eredu konbinatu berria sustatu zuen, hiru osagai zituen eredu: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua eta ekintzailtza aktiboa. Hiru horiei euskal Lanbide Heziketaren nazioartekotzeko arloa gehitzen zaie.
- Unibertsitate Plana 2015-2018 . Bere lau helburu estrategikoen artean bi azpimarra daitezke enpleguarekin duten loturagatik: batetik, euskal gizartearen goi-mailako heziketa-premiei erantzuna eman eredu eta metodologia berritzaileen bidez, ekintzailtza eta laneratzea sustatuz eta gazteak gaituz, informazio-teknologiek asko zehaztutako nazioarteko inguruetan lan egin dezaten; eta, bestetik, euskal gizartearen erronka ekonomiko eta sozialean era erabakigarrian lagundu ezagutza eskualdatu eta profesionalen etengabeko prestakuntzaren bitartez, beste lerro estrategikoen artean hau jarraituz: goi-mailako heziketa eskaintzaren dibertsifikazioa "lanbide-heziketarantz".
- Euskadiko 2020ko Agenda Digitala. Horrek pertsonentzako gaikuntza-lerroak aurreikusten ditu enpresek gero eta gehiago eskatzen dituzten gaitasun digitaletan.

PERTSONAK BABESTEN DITUZTEN ETA ENPLEGUA ESKURATZEN, MANTENTZEN ETA HAREN KALITATEAN ERAGINA DUTEN BESTE EUSKAL POLITIKA PUBLIKO BATZUK

- **2017-2021 Gizarteratzeko Euskal Plana.** Era koordinatu eta orokorrean administrazio eskudunen jarduera gidatzeko esku-hartze eta jarduera-lerro eta gidalerroak jasotzen ditu bazterkeria-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko. Plan horrek gizarte-bazterkeriaren prebentzio eta tratamendurako erronkak eta lehentasunak zehazten ditu eta EAEn gizarteratze- eta laneratze-prozesuak erraztu eta ordenatzeko egin beharko liratekeen aldaketei eta jarduerari heltzen die.
- **Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020. Gizarte-zerbitzuen eta enpleguaren arteko loturaren erroa hau da:** gizarte-zerbitzuek pertsona langileengan zein langabeengan duten eragina, horien oinarrizko premiak betetzen dituzten zerbitzuak emanez.
- **Immigrazioarako Euskal Estrategia.** Estrategia horrek kolektiboaren lanerako, hezkuntzarako eta ikasketa-arrakastarako sarrera sustatu nahi du integratzeko bide gisa, baita Euskadin dauden giza baliabideak —enplegagarritasunerako dauden eragozpen eta mugak (legalak, hizkuntzari lotuak, prestakuntzakoak, ...) ezabatzen laguntzen dutenak— mobilizatu ere. Ildo horretan, prozesu pertsonalizatuak azpimarratu behar dira pertsona immigranteen lan-aktibazioarako orientazioaren, enplegua sustatzearen eta laneko bitartekotzaren bidez.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana 2014-2017 eta aurreikusitako VII. Plana 2018-2021.** Enplegu-arloan, berdintasunerako planek ekintzak sustatzen dituzte emakumeentzat dauden generoen arteko ezberdintasunak murrizteko honako arloetan: laneratzea eta biztanleria aktiboaren tasa, enpleguaren kalitatea, uztartzearen zailtasunak, soldata ezberdintasunak eta beste lan-baldintza ezberdintasunak, hala nola, behin-behinekotasuna eta nahi ez diren lanaldiak.
- **Familiatan eta Haurtzaroan Inbertitzeko Estrategia.** Familia-politikak bizitza pertsonalaren, familiarraren eta lanekoaren arteko uztartzea eta gurasotasun erantzunkidea sustatu eta erraz dezakeen heinean eragina du enpleguaren esparruan. Ondorioz, eragina du ere emakumeak laneratzea eta lanean jarraitzea ez eragotziz eta lagunduz, baita haien aurrerabidea eta hobekuntza profesionala ere lagunduz.
- **2017-2020 IV. Gazte Planak** hezkuntzaren esparrutik lan-esparrura igarotzea, gazteen enplegua eta emantzipazio-aukerak lehenetsiko ditu.
- **2015-2020 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia.** Horren helburua lan-ingurune osasungarria sortzen laguntzea da.

Aipatutako planen artean azpimarratu behar da, gaur egun, Gizarte Ekonomia horietako lautan dagoela, zehazki, 2017-2020 Industrializazio Planean, 2020ko Euskadiko Ekintzailtzarako Instituzioen Arteko Planean; 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoan, eta Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020-Estrategia Basque Country-n. Etorkizunari begira, helburua litzateke gobernuaren planetan gehiago azaltzea, eta bereziki, Gizarte Ekonomiarekin zuzenean lotuta dauden plan guztietan.

Gainera, aipatu behar da enpresei balioa emango dieten ezagutza eta soluzio teknologikoak emateko ikerketak burutzen dituzten zentro teknologikoen sare garrantzitsu bat badagoela Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskal Autonomia Erkidegoak, 80ko hamarkadaz geroztik, berrikuntza babesteko politika bat aplikatu du enpresen lehiakortasuna sustatzeko asmoz, eta ekonomia moderno eta aberats bat indartzeko helburuarekin. Etorkizuneko ikuspegi hori euskal industriak partekatu zuen. Izan ere, industria horrek, Eusko Jaurlaritzak bezala, azken urteetan ikerketan eta garapenean (I+G) egindako inbertsioa biderkatu du. Guztira bere Barne Produktu Gordinaren (BPGd) % 2,10 arlo honetan erabiltzen du.

Berrikuntza sustatzeko Eusko Jaurlaritzak abian jarritako ekimenen artean, 1997an Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea (ZTBES) sortu zuen, eskaintza teknologiko integrala, sofistikatua eta espezializatua euskal enpresa-ehunari eskaintzeko gai zen azpiegitura bat garatzeko.

ZTBES osatzen duten agenteetako bat Euskadiko Zentro Teknologikoen sistema da, oso garrantzitsua enpresa-sektorean berrikuntza-prozesuak hedatzeko.

- CEIT, Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerketa Teknikoen Zentroa
- Fundación CIDETEC
- GAIKER fundazioa
- TEKNIKER fundazioa
- IDEKO, Koop. E.
- IKERLAN, Koop. E. Mug.
- Lortek Batzeko Teknologien Ikerketa Zentroen Elk.
- Vicomtech elkartea
- Tecnalia Research & Innovation

5.1. 2017-2020 Enplegu plan estrategikoa

Enpleguaren Euskal Estrategia 2020: Euskal lan-merkatuak eta lan-merkatu horretan nabarmen eragiten duten sistemek gaur egun duten barne-egoerari buruzko ondorioak.

EGOERA POSITIBOA	TARTEKO EGOERA	EGOERA NEGATIBOA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gure industria-sektorearen sendotasuna. ▪ Ekonomia sustatzeko politika sendoa eta denboran irauten duena. ▪ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen sendotasuna. ▪ Gure lanbide-heziketaren kalitatea. ▪ Hein handi batean langabeziaren ondorioak arintzen dituen gizarte-babeseko sistema propioa izatea. ▪ Ekonomia sozialaren garrantzia gure ekoizpen-egituran. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Langabeziaren kopuru orokorrak. ▪ Gure biztanleria aktiboaren kualifikazioa. ▪ Gure hezkuntza-sistema gure ekoizpen-sistemaren errealitatearen arabera egokitzea. ▪ Inbertsio-ahalegina I+G+B arloan. ▪ Desberdintasunak aukera-berdintasunean emakumeen eta gizonen enpleguari dagokionez. ▪ Ekintzailtzarako maila eta laguntza-zerbitzuak. ▪ Lan-harremanen giroa. ▪ • Eskumen-maila. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jarduera-tasa txikia. ▪ Behin-behinekotasun handia eta enplegu finkoaren zein aldi baterako enpleguaren arteko dualtasun-maila handia. ▪ Nahi ez den partzialtasuna. ▪ Langabezia-tasa altua gazteen artean. ▪ Iraupen luzeko eta oso luzeko langabeziaren kronifikazioa. ▪ Desgaitasuna duten pertsonen egoera. ▪ Laneratzen laguntzeko banakako zerbitzuetan eta enpresekiko harreman zein zerbitzuetan gabeziak dituen Euskal Enplegu Zerbitzua. ▪ Etengabe ikaskuntzaren kopuruari eta kalitateari lotutako gabeziak.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoan biltzen den bezala, gizarte-ekonomiak eragin positiboak ditu enpleguan. Hori, alde batetik, Euskadiko produkzio-egituran gizarte-ekonomiak duen garrantziagatik — lanpostu asko sortzen ditu— gertatzen da. Bestetik, jarduera mota honetan sortutako enplegua beste sektore batzuetan sortutakoa baino sendoagoa delako nabarmentzen da.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak ondoren aipatuko ditugun helburuak planteatzen ditu. Bertan, gizarte-ekonomiaren garapenak garrantzi handia duela ikus daiteke.

Kalitatezko enplegua sustatu, egoera ahulagoan dauden pertsonen eta euskal gazteei garrantzi berezia emanda.
Laneratzea sustatu tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez.
Enplegurako prestakuntza sustatu, langabeen eta landunen artean; horri lotuta, irizpide nagusitzat hartu behar da jakintza-ekonomian gaitasunak direla enplegu-bermerik handiena.
Ekintzailtza era integrean sustatu, gure gizartean duen garrantzia estrategikoari balio emanaz.
Honako hauek baliatu: garapen turistiko jasangarriak enplegua sortzeko duen gaitasuna, tokiko merkataritzaren finkapena, sektore primarioaren modernizazioa eta gizarte-ekonomiaren eta sektore publikoaren garapena.
Etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko Renove programen aktibazioa lortu, enplegua sortzeko jarduera trinkoak direla egiaztatuta.
Enpresarekin konektatuago dagoen hezkuntza-sistema batean sakontzen jarraitu, bai gaitasunak lortzeko terminoetan, bai hezkuntza-etapatik etapa profesionalera igarotzeko erraztasunean.
Beharrezko xedapen eta baldintzak zaindu eta eratu enpleguaren kalitatea hobetzeko, egonkortasun, seguritate eta karrera profesional motibatzaile eta gogobetegarrien garapen aukerei dagokienez euskal langileentzako, halaber, langileek kudeaketa, mozkin eta jabetasunean parte-hartzeko aukera erazteko.
Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren balio ekarpena hobetu euskal enplegu-politikaren tresna operatibo gisa, pertsona eta enpresentzako zerbitzu integratuagoak eskaini ditzan, "ibilbide" kontzeptua bereziki azpimarratuz.

Plan estrategiko hau 9 jarduera-esparruren gainean egituratzen da, eta horietako batean gizarte-ekonomiari berriazko erreferentzia egiten zaio (1. jarduera-esparrua: **ETE-AK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA**).

Jarduera-esparru horren barruan, gizarte-ekonomia babesteko jarduketa-ildo bat aurreikusi da. Bertan, gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko babesa eman nahi da eta badauden enpresak finkatu eta garatu nahi dira. Horretarako, ondorengo jarduketa-ildo hauek aurreikusten dira:

- ✓ Gizarte-ekonomian ekintzaitza sustatzea, **gizarte-ekonomiako enpresak sortzen laguntzeko zerbitzu integralen** bitartez, aholkularitza, laguntza, garapeneko finantzazioa, martxan jartze eta ekimen berriak sendotzea barne.
- ✓ **Krisialdia bizi duten enpresei laguntzeko eta eskuz aldatzera doazen enpresei gizarte ekonomian eraldatzeko** ekintza bereziak, baita enpresa horien jarraitutasuna errazteko ekintzak ere.
- ✓ **Gizarte-ekonomiako enpresen sozietate-oinarria areagotzea.** Horretarako, bazkide zehaztu gabeak sendotzen eta bazkide berriak barneratzen lagunduko da.
- ✓ **Gizarte-ekonomia tokiko garapeneko lurralde politikekin eta Europa-mailakoekin lotzeko bultzatzea,** eta eskualdeko tokiko enpresa eta administrazioekin lan egitea gizarte ekonomian enplegua sortzea eta mantentzea errazteko.
- ✓ **Gizarte-ekonomiako enpresen arteko** era orotako **lankidetzak** sustatzea, mantentzeko berme eta enpresaren zein gizartearen hazkuntza eta garapen bultzatzaile gisa.
- ✓ Kudeaketa aurreratuko tresnak inplementatzen laguntzea, **gizarte-ekonomiari lotutako langile bazkideen enpresa-kudeaketa egokia** sustatzeko.
- ✓ **Langileen partaidetza** sustatzea enpresen kudeaketan, emaitzetan eta kapitalean, ohiko enpresetan gizarte-ekonomiaren balioak eta ezaugarriak zabaltzeko.
- ✓ **Lankidetzarako enpresen proiektuentzako finantzazioa** sustatzea.

Ondorengo taulan, helburu estrategikoen zerrenda eta gizarte-ekonomiari lotutako bakoitzaren adierazleak ikus daitezke:

2017-2020 helburu espezifikoak	Adierazleak
Gizarte ekonomiako 800 enpresa berri sortzen laguntzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sortutako gizarte ekonomiako enpresen kopurua (2017-2020) ▪ Laguntza jaso duten gizarte ekonomiako enpresa berriek sortutako enpleguak (2017-2020)
Gizarte ekonomiako enpresetako lan-bazkide mugagabeen oinarria areagotzea, bereziki emakumeen, gazteen, desgaitasunen bat duten pertsonen edota lana aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean, 700 bazkide berri barneratzen.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte kontratu mugagabe totalen kopurua (2017-2020) ▪ Gazteen gizarte kontratu mugagabeen kopurua (2017-2020) ▪ Emakumeen gizarte kontratu mugagabeen kopurua (2017-2020) ▪ Desgaitasunak edo barneratze-arazoak dituzten pertsonen gizarte kontratu mugagabeen kopurua (2017-2020)
Eraldaketa prozesuak egiten laguntzea krisialdia bizi duten enpresen gizarte ekonomiako enpresetan edo oinordetza-dinamikak bizi dituzten enpresetan, enpresari jarraitutasuna emateko eta lanpostuei eusteko irtenbide gisa.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lagundutako enpresen kopurua (2017-2020) ▪ Laguntza jasotzen duten enpresetan sortutako enpleguak (2017-2020)
Gizarte ekonomiako enpresak kanpoko finantzazioa lortzea erraztea, txikiak eta barneratze-arloari lotutakoak bereziki, elkarrekin batera lan eginez, 160 enpresarentzako abalak emanaz.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Emandako abalen kopurua (2017-2020) ▪ Emandako abalen zenbatekoa (€, 2017-2020) ▪ Emandako abalekin lagundutako enpresen kopurua (2017-2020) ▪ Abalak jasoko dituzten enpresetan lagundutako enpleguak (2017-2020)

Halaber, 8: *Enpleguaren kalitatearen hobekuntza* jarduera-esparruaren barruan *Gizarte Ekonomiaren* aldeko apustuaz hitz egiten da. Jarduketa-ildo horren barruan, sustatzeko eta babesteko honako neurri hauek aurreikusten dira:

- ✓ **Gizarte-ekonomiaren abantailei eta aukerei buruzko informazioa eta prestakuntza** trebatzea hezkuntza-maila guztietan eta gizarte-ekonomiako enpresetan, erakunde ordezkarien bitartez, eta helburu horrekin sortutako programen laguntzarekin.
- ✓ Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak bultzatzea, **Euskadin gizarte-ekonomia sustatzeko hitzarmenen bidez, erkidegoko administrazioaren, foru-administrazioaren eta tokikoaren eta erakunde garrantzitsuenen artean.**
- ✓ **Gizarte-ekonomiako enpresen agintaritzak korporatibo ona sustatzea**, eta haien bazkideen trebakuntza bultzatzea kudeaketa- eta ordezkaritza-funtzioak bete ditzaten.
- ✓ **Kooperatiben Legea onestea** gizarte-ekonomiako eragileek aho batez onartuta.
- ✓ **Gizarte-ekonomiaren printzipioak eta balioak** gizartean, oro har, **zabaltzea.**
- ✓ Gizarte-ekonomian elkarrekin sortzeko sustatzea, **gizarte-ekonomiako enpresen elkarrekin erakundeak sendotuz.**

2017-2020 helburu espezifikoak	Adierazleak
Unibertsitateko eta unibertsitate aurreko hezkuntza-sarean gizarte ekonomiaren inguruko heziketa areagotzea.	▪ Gizarte ekonomiako heziketa ekintzetan parte hartuko duten unibertsitateko eta unibertsitate aurreko ikasleen kopurua (2017-2020)
Gizarte ekonomiako heziketa areagotzea gizarte ekonomiako enpresetan, haien elkarrekin erakundeen bitartez	▪ Heziketa jasoko duten gizarte ekonomiako enpresetako langileen kopurua (2017-2020)
Gizarte ekonomiaren presentzia indartzea euskal gizarte ekonomiaren ezaugarriak dituzten erakundearen sarean, komunikabideetan eta eztabaidaguneetan	▪ Egin diren gizarte ekonomiako eztabaida kopurua (2017-2020)
Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak sustatzea gizarte ekonomia Euskadin sustatzea. Horretarako, gubxienez, euskal agintari publikoen eta euskal gizarte ekonomiako erakunde, mugimendu kooperatibo eta lan elkarrekin aipagarrienen artean asmo onen eta lankidetzarako 2 hitzarmen sinatuko dira	▪ Sinatutako hitzarmenen kopurua (2017-2020)
Gizarte ekonomiako enpresak halako enpresen kudeaketaren betekizun berriak egokitzen laguntzea: sektoreko enlitate aipagarrienen informazioa eta trebakuntza jarduera espezifikoak burutuko dituzte.	▪ Korporazio-gobernuko eredu berria barneratzen duten enpresen kopurua (2017-2020)
Kooperatiben Legea onestea 2018an	▪ Kooperatiben Legearen onespina (BAVEZ)

Gizarte-ekonomiaren aldeko apustuaren ildotik enpleguaren kalitatea hobetzeari dagokionean, helburu estrategikoen eta horietako bakoitzaren arteko erlazioa ondorengo modu honetan egiten da: Jarduera-esparru berarekin jarraituz, gizarte- eta enpresa-erantzukizuna, eta langileek enpresan duten parte-hartzea sustatzeari dagokionean, ondorengo honetan laguntzea bilatzen da:

- ✓ Kudeaketa arduratsuen printzipioak era egituratuan barneratzea, agintaritzak publikoko arau eta ekintzekin. Horretarako, **enpresen gizarte-erantzukizuneko plana onartuko du Jaurlearitza** eta sailen arteko Jarraipen Batzordea onetsiko da.
- ✓ **Enpresen gizarte-erantzukizuna barneratzeko euskal eredu baten diseinurako** erakunde arteko koordinazioa zuzentzea, enpresen gizarte-erantzukizuneko erakunde arteko euskal forua sortuz.
- ✓ **Euskal ekonomia-sarean enpresen gizarte-erantzukizuna hedatzea eta sustatzea, eta euskal enpresei neurketa- eta hobekuntza-metodo berriak barneratzen laguntzea** (enpresen gizarte-erantzukizuneko bikaintasun-ereduak).

Gainera, **enpresen kudeaketan, mozkinetan eta/edo jabetzan langileen parte-hartzearen sustapena** sendotuko da, besteak beste, honako neurri hauen bitartez:

- ✓ Langileek enpresetan parte hartzeko aukeren, diseinuaren eta barneratzearen ebaluaziorako ekintzak burutuko dira.
- ✓ Egun langileek enpresen kudeaketan eta kapitalean parte-hartzea sustatzeko dauden programak sendotzea, euskal enpresen harreman berrietan berrikuntza-tresna gisa.
- ✓ Langileen parte-hartzearen onuren berri emateko eta zabaltzeko jarduerak burutzea.
- ✓ Eredu parte-hartzaileen eta euskal ekonomiari egokitzeko gaitasunaren balioztatze-jarduerak garatzea.

Gizarte- eta enpresa-erantzukizuna, eta enpresan langileen parte-hartzea sustatzeko ildotik, enpleguaren kalitatea hobetzeari dagokionean, helburu estrategikoen eta euren adierazleen arteko erlazioa honako modu honetan aurkezten da:


2017-2020 helburu espezifikoak	Adierazleak
Enpresen gizarte erantzukizuna modu egituratuan agintaritza publikoan barneratzea Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plan berria 2017an diseinatu eta onartzen,	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plana onestea: BAI/EZ
Enpresen gizarte erantzukizunaren sustapenaren koordinazioa errazteko Foru Aldundiekin eta tokiko erakundeekin, enpresen gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko forua sortzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresaren gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko eztabaidagunea edo forua sortzea: BAI/EZ ▪ Enpresaren gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko eztabaidagunearen bilera kopurua (2017-2020)
Euskal enpresen gizarte erantzukizuna neurtu eta hobetzeko metodoak barneratzen laguntzea (bikaintasun ereduak)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresaren gizarte erantzukizunearik bikaintasun ereduak barneratzeko laguntzak jasoko dituzten enpresen kopurua (2017-2020) ▪ Enpresaren gizarte erantzukizunearik bikaintasun ereduak barneratzeko laguntzak jasoko dituzten enpresen enplegu kopurua (2017-2020)

5.2. 2020 Euskadiko ekintzaitzako erakunde arteko plana

Gizarte-ekonomiako enpresa berriek ere (kooperatibak, lan-sozietateak, enplegu-zentro bereziak, beste erakunde batzuen artean) eboluzio positibo bizi izan dute azken urteetan bai enpleguari bai erakunde kopuruari dagokienez; izan ere, guztira, euskal ekonomian diharduten erakunde guztien % 16,5 izatera iritsi dira dagoeneko, erakunde-kopuruaren eta halako enpresetan diharduen langile-kopuruaren gehikuntzari esker.

Gaur egun, ekintzaitza babesteko eragileen ekosistema publiko eta pribatua gero eta osatuagoa eta aktiboagoa dago, non Gizarte Ekonomia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den. Ondorengo grafikoa eragile horiek garatzen dituzten jardueren arabera antolatu dira:

Ekintzaitza babesteko agenteen mapa



EAEn ekintzaitzari laguntzeko dauden zerbitzu, programa eta azpiegituren kopurua, aniztasuna eta espezializazio-maila nolakoak diren kontuan hartuta, esan daiteke gure laguntza-sistema Estatuko eta nazioarteko beste ekosistema batzuen parekoa edo hobea dela.

Hala, Euskadin, gaur egun, 300 laguntza-zerbitzu eta -programa daude ekintzaitza-fase eta kolektibo guztietarako; eta badago, halaber, premia bakoitzera egokitutako profesional eta azpiegitura espezializatuen sare zabal bat.

Era horretan, Gizarte Ekonomiari lotutako proiektuan ekintzaitzarako testuinguru egokia sortzen da.

	Lan ildo aipagarriak	Adibideak
Laguntza programa eta zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> Lagun egiteko zerbitzuak enpresak sortzeko eta ideia umotzeko prozesuetan. 	Urratsbat, Txekin, Txekintek/Ekintzaile, Lanbide Ekintzailetzarako Laguntzak, besteak beste
	<ul style="list-style-type: none"> Sektore eta kolektibo espezifikoetara bideratutako programak. 	Sormenari loturiko industriak, merkataritza, nekazaritzako elikaduraren eta landa ingurunearen sektorea, besteak beste
	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeei bideratutako programak. 	Emekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarena Bizkaiko Foru Aldundiak AED/ CEBEKekin izenpetutako hitzarmenak eta laguntzak
	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateak, Lanbide Heziketak eta ZTBESk ezagutzaren eta teknologien transferentzian oinarritutako enpresak martxan jartzeko ematen duten laguntza. 	Inizia/ Zitek / Entreprenari Enpresa berritzaileak sortzeko programa
	<ul style="list-style-type: none"> Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen sustapena. 	Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien hainbat programa
	<ul style="list-style-type: none"> Startupen azelerazioa. 4.0 industrian lan egiten duten mundu guztiko startupen azelerazioa. 	Metxa, Berriup BIND 4.0
	<ul style="list-style-type: none"> Enpresen barruan barne ekintzailetzaren jarduerari emandako laguntza. 	Eusko Jaurlaritzaren barne ekintzailetzako egitasmoa, BICen Barneekin programa eta EHU/UPVren Zabalduz
Infrastructuras	<ul style="list-style-type: none"> Bazkideak sartzeari, ondorengotzari, belaunaldien arteko erreleboari eta enpresa transmisioari buruzko programak. 	Dauden proiektuak indartzea Gizarte ekonomiako bazkide berriak Parte hartze bidezko ondorengotza Belaunaldi erreleboa LH Gaztenek
	<ul style="list-style-type: none"> Inkubazio eta laguntza azpiegiturak BICetan. Inkubazio azpiegitura aurreratuei eta laguntza zerbitzu espezializatuei emandako bultzada ingurune unibertsitarioetan, zientifiko eta teknologikoetan eta BICetan. Tokiko eta eskualdeko laguntza azpiegiturak. 	Azpiegitura espezializatuen sarea, inkubagailuak, haztegiak, azeleratzaileak, coworking espazioak, besteak beste.
BICs	<ul style="list-style-type: none"> BICen maparen berrantolaketa eta homogeneizazioa, enpresetara eta ZTBESko eragileengana hurbiltzeko, eta zerbitzuak poliki-poliki sofisticatuz joateko, nazioartean onartua dagoen BIC kontzeptuaren ildotik. 	Hiru lurralde historikoetako BICak.

Grafiko honetan euskal ekintzailetzaren bost tasun definitzaile identifikatzen dira errealitate ekintzailea bera erraz ezaugarritu ahal izateko; Euskadik —ekintzailetzari heltzeko lurralde erakargarri gisa— dauzkan ezaugarri bereizgarriak nabarmentzeko; eta euskal ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatu guztiek partekatutako kontaketa baten alde egiteko.

Euskal ekintzailetza eredua

Tasun definitzaileak



Iturria: geuk egina

Aurreko definizio-ezaugarrien artean, Gizarte Ekonomiako proiektuak garatzeko eta abian jartzeko, oso garrantzitsua da ekimen pribatua gero eta handiagoa izatea. Ildo horretatik jarraituz, azpimarratu behar da sektore pribatuak gero eta garrantzi handiagoa hartu duela eta, gaur, funtsezko papera betetzen duela ekosisteman. Euskadin pertsona ekintzaile baten eskura dagoen laguntzen sareak, besteak beste, enpresa- eta industria-ehunaren, finantza- eta inbertsio-sektorearen, bigarren belaunaldiko ekintzaileen, azeleratzaile pribatuen, unibertsitateen eta teknologia-zentro pribatuen ehun asoziatiboaren, sareen, hainbat fororen eta hedabideen gero eta esku-hartze handiagoa jasotzen du.

Era berean, proiektu berriak garatzeko oinarri sendo gisa, euskal gizartean enpresa-mentalitate bat eta lan-kultura bat —konpromisora, esfortzura, seriotasunera, zehaztasunera, errotzera eta zuhurtziera bideratua— edukitzeak duen garrantzia baloratu behar da.

EEP 2020ren helburu nagusia da ekintzailtza integralki babestea, gero eta proiektu, enpresa eta enplegu berri, lehiakor eta sostengarri gehiago sor eta haz daitezen, batez ere etorkizun oparoko sektoreetan, Euskadi ekonomikoki eta sozialki eraldatzeko aro berri bat sor dadin.

Helburu global hori lortzeko, bederatzi helburu estrategiko definitzen dira, jarduketa-ardatz bakoitzeko bat.

Aurkeztutako helburu estrategikoen artean 4 ildo azpimarratu behar dira. Ildo horiek funtsezkotzat jotzen dira Gizarte Ekonomian proiektuak behar bezala garatzeko:


- **Ekintzailtza-kultura eta balioak:** Ekintzailtza kolektiboa funtsezko osagarri gisa aurkeztzen da Gizarte Ekonomiako proiektutan, arriskuak eta emaitzak partekatzeko aukera ematen duelako, era horretan elkarrenganako laguntza eta autoerantzukizuneko balioak azpimarratuz.
- **Ekintzailtza-iturriak eta -ideiak:** Ekintzailtza ahalbidetuko duen azpiegitura tekniko, finantzario eta laguntzako bat sortzeko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanak, bereziki, Gizarte Ekonomian proiektuak mamitzen laguntzen du. Izan ere, mota honetako proiektutan atxikia dagoen oreka ekonomiko/sozialeko ikuspegiaren ondorioz, askotan laguntza lortzen zailtasunak dituzte, proiektu merkantilistagoak baino irabazi ekonomiko txikiagoak lortzen baitituzte.
- **Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa:** Gizarte Ekonomiarekin lerrotatzen diren balioak bultzatzeko helburuarekin.
- **Azpiegitura adimendunak:** Gizarte Ekonomian proiektuei produktibitate handiagoa eta merkatuaren gorabeherei erantzun azkarra ahalbidetuz.



Gizarte-ekonomia bezalako esparrutan, landa-ingurunea bezalako zonetan eta, besteak beste, merkataritza, nekazaritza eta elikadura, IKT, kultur industria, zahartze eta “ekonomia berdea” bezalako sektoreetan aukera berriak sortzeko helburuarekin, horiek lortzeko aurreikusten diren jarduketa-ildoak Merkataritzan, Turismoan, Landa Ingurunean, Gazterian edo “Ekonomia zirkularrean” programa sektorialak eta ekintzailtza-planak garatzera bideratuko lirake. Era horretan, enpleguari eta erakunde kopuruari dagokienean, gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko eboluzio positiboa lortu nahi da. Horretarako funtsezkoa da sektoreen artean koordinatzea eta sinergiak aprobetxatzea.

Jarraian, EAEn ekintzailtzari babes ekonomikoa eta finantzarioa emateko tresnen maparen ilustrazio bat erakusten dugu. Bertan, Gizarte Ekonomiako enpresak finantzatzeko tresna baliagarriak identifika daitezke.

EAEko Ekintzailetzarako laguntza ekonomiko-finantzariorako tresnen mapa




Iturria: lanketa propioa, oinarritzat hartuta "Berrikuntzaren finantzaketa, inbertsio eta gaikuntzaren katalogoa" (Innobasque 2017) eta EAEko hainbat eragile finantzario publiko eta pribatuen ekarpenak.

Falta texto

Era berean, EAEn ekintzailetzaren egoera orokorraren zirriborroarekin jarraituz, ondorengo eskeman EAEn ekintzailetza babesteko programen eta zerbitzu publikoen ondorengo eskema hau aurkezten da:

EAEn ekintzailetza babesteko programa eta zerbitzu publikoen mapa



5.3. Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 – Basque Country Estrategia

Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 — Basque Country Estrategiak nazioartekotzeko prozesua ikuspegi guztietatik aztertu du, honako alderdi hauek definituz:

- Euskal agente guztien nazioarteko jardura garatzeko interes eta lehentasun geografiko eta tematikoak.
- Euskadin ahalmen, berezitasun eta balio diferentziala duten eta kanpora begira eman nahi den irudia proiektatzen laguntzen duten aktiboak eta jardun-eremuak.
- Kanpoan gure garapen jarraitu eta iraunkorrerako lagungarriak izango diren interes sektorialak sustatzeko mekanismo egokiagoak.
- Euskadiren ahotsa Europara helarazteko eta Europaren eraikuntzan aktiboki parte hartzeko tresna egokiak.
- Kanpoan den euskal komunitatearekiko lotura sakontzeko, eta lotura hori nazioartekotzeko estrategiaren zerbitzura jartzen lagunduko duten tresnak zehazteko baliaibiderik egokienak.

Bertatik, Euskadiko lurralderako nazioartekotze-plan bat ondorioztatu da Basque Country Estrategia izenarekin. Ondorengo diagraman estrategia horren eskema orokor bat aurkezten dugu:



Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 ikusiz, Gizarte Ekonomia aktore nagusi izan daitezkeen bi esparru identifika daitezke.

Alde batetik, posizionatzeari eta erreferentziari dagokienean, hau da, Euskadi nazioarteko erreferentzia gisa sustatzeari dagokionean, Gizarte Ekonomia elementu bereizgarri eta bereizle gisa argi identifika daiteke. Horri dagokionean, guztien gainetik kooperatibak nabarmentzen dira, eta aipamen berezia merezi du MONDRAGON taldeak. Kooperatiben talde hori gaur egungo globalizazio-testuinguruan aurrera egiteko aukeraren adibide argia da, gainerako enpresa transnazionalekin alderatuta oso antolakuntza-planteamendu diferenteekin.

Bestalde, Gizarte Ekonomia estrategia honetan eragin dezake nazioarteko itunen ezarpena moldatuz. Gizarte Ekonomia atzerriko beste eragile batzuekin loturak sortzen saiatzeak, Euskadin ezar daitezkeen proiektuak bertatik bertara ezagutzeko aukera emango luke, era horretan, ekonomia iraunkorrago eta sozialago batera iragatea sustatuz.

5.4. "Basque Country 4.0" Industrializazio-plana 2017-2020

Gizarte Ekonomia, EUSKADI 2020 Plangintza Estrategikoak planteatutako helburuak lortzeko oinarrietako bat bezala aurkezten da eta Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP) garapen iraunkorreko helburuen esparruaren barne sartzen da. Zehazki, ingurumenaren errespetutik abiatuz eta bere jarduketaren ardatz pertsonak izanik, arrakastarako palanka gisa diharduen elementu bat denez, garapen iraunkorreko helburuekin oso ondo lerrokatzen da. Are gehiago, lankidetzan oinarritzen den tresna bat denez, bakea eta bizikidetzeta, genero-berdintasuna eta desparekotasun sozioekonomikoak bezalako gizarte-gaia aurrera egiten ahalbidetzen du.

Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 industrializazio-plana XI. legegintzaldiko Jaurlaritzaren programan sartzen da. Programa horretan Giza Garapen Iraunkorrean aurrera egiteko ondorengo helburuak aurkezten dira:

Langabezia % 10etik behera murriztea.

- 20.000 gaztek lehen lan-esperientzia izan dezaten lortzea.
- Industriako BPGd-aren % 25era eta EBko per capita BPGd-aren % 125era heltzea.
- Pobrezia-tasa % 20 murriztea..
- Ikerketako 100 proiektu estrategiko garatzea Euskadi ikerketa-proiektuen buru ipintzeko fabrikazio aurreratua, energia eta biozientzia-osasuna bezalako lehentasun estrategikotan.
- Berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea.

Hori lortzeko, 650 ekimen aurreikusi dira eta 175 konpromiso finkatu dira, lau oinarriren bitartez:

1. oinarria. Enplegua, indarberritzea eta iraunkortasuna, "lehentasun bat".
2. oinarria. Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak, "erantzukizun bat".
3. oinarria. Bizikidetzeta eta giza eskubideak, "premia bat".
4. oinarria. Autogobernu gehiago eta hobea, "aukera bat".

Testuinguru horretan, Gizarte Ekonomia tresna eraginkorra da, finkatutako jarduketa-oinarriak errespetatuz helburu horiek lortzen aurrerapausoak emateko. Hau da, hazkunde ekonomikorako balio duen tresna gisa aurkezten da, eta aldi berean, ingurumeneko eta gizarte-arloko alderditan eboluzionatzeko aukera ematen du.

Azkenik, planak hainbat helburu estrategiko definitzen ditu, eragin handiena izan dezaketen Gobernu Programaren eta Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru Programaren helburuak bereak eginez. Ondoren aurkeztuko diren helburu horietan Gizarte Ekonomia leku nagusia dauka.

Lehendabizi, euskal herritarren ongizatearekin lotutako erreferentziako hiru helburuz hitz egin daiteke:

- Enplegu gehiago. Langabezia % 10etik behera murriztea.
- Aberastasun handiagoa. EBaren per capita BPGd-aren % 125era heltzea.
- Aberastasuna hobeto banatzea. Pobrezia-tasa % 20 murriztea.

Horiekin batera, helburu kuantitatibo bat markatuta dago; helburu hori zuzenean Industrializazio Planari dagokio eta, hortaz, Plan honen lehen helburu nagusi gisa har daiteke:

- Industria gehiago. Industria euskal ekonomiaren BPGd-aren % 25era iristea.
- Jaurlaritzak aurretiaz ezarritako esparru horretatik abiatuta, 2017-2020 Industrializazio Planean helburu osagarriak jasotzen dira:
- Industria hobea. Helburu honetan barne hartzen diren dimentsio aniztatetik, hauek dira 2017-2020 aldirako lehentasunak:
- 4.0 Industriaren paradigman fase berria abiaraztea.
- Euskal enpresa merkatu globalean sartzeko eta haren nazioarteko lehiakortasuna bultzatzeko jauzi kualitatiboa bideratzea.
- Lehiakortasunaren hobekuntza orokortua ahalbidetzea, enpresa, sektore eta lurraldeen tipologiari dagokionean (inor ez dadila atzean geratu).
- Enpresen beharizanen eta profil profesionalen arteko lotura euskal industriaren lehiakortasun-faktorea izan dadin oinarriak ezartzea.
- Industria-politika eraginkorra. Jaurlaritzaren industria-politika modernizatzen eta hobetzen jarraitzea, programa aurreratuak sortuz eta baliabide publikoak modu eraginkorragoan erabiliz.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, eta definitutako helburu estrategikoetan aurrera egiteko asmoz, legealdi honetan euskal industriari babesa, ondorengo eskeman aipatzen diren 6 ardatzen inguruan egituratuko da:



5.5. IV. Gazte Plana 2017-2020

Plan honen esparruan, Euskadiko gazteriarengan bereziki eragiten duten hainbat gai apatzen dira, besteak beste, **lan-egoera eta egoera ekonomikoa, etxebizitza eskuratzeko aukera, Euskara ezagutzea eta erabiltzea, osasuna eta zaurgarritasuna, eta balioak, jarrerak eta jokabideak**. Gauzak horrela, 2017-2020 aldirako IV. Gazte Planean aurretik aipatutako esparruetan identifikatutako premiei modu integrean ekiteko beharrezko jarduketa-ildoak biltzen dira.

Atal honen sarreran aipatu bezala, plan horrek hezkuntza-esparrutik lan-esparrurako iragatea, gazteen enplegua eta emantzipazio-aukerak lehenetsiko ditu. Kontuan izanda krisi ekonomikoaren ondorioak gehien sufritu duen taldea izan dela eta ziklo ekonomikoaren gorabeheren aurrean egoera ahulagoa dutela, plan honetan garrantzi berezia ematen zaio euskal gazteak emantzipatzeko aukerak handitzeari, euren egoera ekonomikoa hobetuz.

Halaber, gazteek aldatzeko ahalmen handia dute, eta gizarte-eraldaketek euren bizi-baldintzetan, balioetan eta jarreretan eragiten dute. Beraz, 2017-2020 aldiko IV. Gazte Planaren eta Gizarte Ekonomiako zuzendaritzaren jarduketa-planen arteko elkarrekintzak aukera paregabea eskaintzen du gazteen artean gizarte-ekonomiak sustatutako printzipioak eta balioak gazteen artean indartzeko. Are gehiago, gazteen artean gizarte-ekonomiako proiektutan enplegua zein ekintzailtza gazteen artean sustatzeko aukera da.

Hortaz, bi planen arteko elkarrekintzak eragindako sinergiek euskal ekonomia ingurumen- eta gizarte-iraunkortasun handiagoko eredu batera eraldatzen lagunduko lukete.

5.6. Unibertsitate Plana 2015-2018

2015-2018ko Unibertsitate Planak lau helburu estrategiko ditu:

1. **Euskadiko gizartearen goi-mailako prestakuntza-premiei erantzutea.**
2. **Euskal Unibertsitate Sistemaren (EUS) baliabideak garatzea eta orientatzea, goi-mailako ikerkuntza eta nazioartean proiektatzeko modukoa garatzeko.**
3. **Euskadiko gizartearen erronka ekonomikoei, sozialei eta etengabeko prestakuntzakoei gero eta gehiago laguntzea.**
4. **EUSan honako hauek bermatzea: zerbitzu-eskaintza inklusiboa eta kalitatekoa; baliabideen eta teknologia berrien erabilera iraunkorra, ingurumen aldetik arduratsua eta gardena; eta finantzabide orekatua eta iraunkorra.**

Testuinguru horretan, planean definitutako helburu estrategikoak lortzeko oso tresna garrantzitsu gisa aurkezten da Gizarte Ekonomia.

Alde batetik, euskal gizarterako iragarritako epe laburreko eta ertaineko erronkek —adibidez, biztanleria zahartzea eta produkzio-ehuna eraldatzea— gizarte-ekonomiako eragile gehiago beharko dituzte. Era horretan, unibertsitateen eta Gizarte Ekonomiako erakundeen arteko lankidetzaz-erlazio estuagoa behar da produkzio-adar honek beharko duen prestakuntza-premiei erantzuteko.

Bestetik, lehen aipatutako erronkei erantzuteko helburuarekin, unibertsitateek Gizarte Ekonomiara zuzenduta egongo den ikerketara baliabide handiagoak bideratzeko premia dago. Era berean, 2015-2018ko Unibertsitate Planak ezarritako hirugarren helburu estrategikoarekin bat etorritik eta aurreikusitako erronka sozioekonomikoetan laguntzeko helburuarekin, unibertsitate-esparruan Gizarte Ekonomiak garrantzi handiagoa izan behar du.

Azkenik, Gizarte Ekonomiaren jarduteko moduek, praktikek eta balioek asko lagunduko lukete 2015-2018ko Unibertsitate Planaren laugarren helburu estrategikoa lortzeko.

5.7. Lanbide Heziketako EAEko V. Plana 2018-2021

2018-2021 Lanbide Heziketako EAEko V. Planak, azken batean, hainbat helburu lortzea bilatzen du. Horien artean honakoak azpimarra daitezke:

- Euskal giza kapitala eta haren enplegarritasuna bultzatzea, gaitasunak eta ezagutzak hobetuz, eta espezializazioaren eta sektore berrien garapenaren aldeko apustu irmoa eginez.
- Merkatu globalean euskal industriaren lehiakortasuna indartzea eta, aldi berean, pertsonen enplegarritasuna sustatzea eta Euskadin gizarte-kohesioa eta giza garapena bultzatzea.
- Lanbide-heziketako euskal sisteman eraldaketa-prozesua sustatzea, haren sendotasunak oinarri hartuta, Euskadiko enpresa-ehunak aurre egin behar dion ingurune lehiakor berritik eratorritako erronken erantzun gisa.

Helburu horiek lortzeko, Gizarte Ekonomiak eragile gisa ahalmen handia duela uste da, eta 2018-2021 Lanbide Heziketako EAEko V. Planak bilatzen duen eraldaketa-prozesua gida dezake.

Lehendabizi, dokumentuan argudiatu den bezala, Gizarte Ekonomia Euskadiko ekonomia-ehunaren sektore hasiberria denez, eta etorkizunean etorriko diren erronka sozioekonomikoei erantzuten laguntzen duenez, premia kotzat jotzen da Lanbide Heziketako erakundeek planteamendu horietan sakontzea. Izan ere, Gizarte Ekonomiako erakundeak dibertsifika daitezten eta jarduera-bolumen handiagoak lor ditzaten, ezinbestekoa da sektore honen beharrei erantzungo dien Giza Kapitala sortzea.

Behin baino gehiagotan aipatu da Gizarte Ekonomiak merkatuetan lehiakortasuna bateragarri egiten duela garapen ekonomiko eta sozialeko planteamenduen bitartez. Beste modu batera esanda, Gizarte Ekonomiak mozkin ekonomikoaren eta “gizarte-onuraren”¹ arteko oreka bilatzea azpimarratzen du. Beraz, LHko erakundeek eta Gizarte Ekonomiako eragileek arteko lankidetzak estuago bati esker, erakundeek lehiakortasun-maila handiagoa, batetik, eta giza garapena eta gizarte-kohesioa hobetzeko laguntza handiagoa, bestetik, errazago uztartuko lirateke.

Era berean, LHko erakundeentzako Gizarte Ekonomiak izugarizko garrantzia hartzen du, erakunde horiek gaur egun eraldaketa-prozesuan —beren prestakuntza-eskaintza ekonomiaren eskaera berrietara egokitzen— erabat murgilduta daudela kontuan hartuta. Gizarte Ekonomiako erakundeek gero eta garrantzi handiagoa dutela ikusita, Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintzaren bilakaera moldatuko duen sektorea izango da zalantzarik gabe.

¹ “Gizarte-onura” terminoak enpresa barruan planteamendu merkantilista soilak baztertzeari egiten dio erreferentzia, gizarte-ingurunearekin eta ingurumenarekin gehiago erlazionatzeko, interes-talde guztien onura bilatuz.

6. EUSKO JAURLARITZAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOEK ETA PRIBATUEK SUSTATUTAKO FINANTZIAZIO TRESNA NAGUSIAK

Atal honetan garrantzitsua iruditzen zaigu edozein motatako enpresentzako Eusko Jaurlaritzak dituen finantziazio-tresnak kontuan hartzea.

EUSKO JAURLARITZAK SUSTATUTAKO FINANTZIAZIO TRESNAK

Lurraldearen jarduera ekonomikoa garatzeko, enpresek eta autonomoek bankuko eta bankuz kanpoko mota askotariko finantziazioa eskuratzea sustatzen edo errazten saiatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa. Jarduketa publiko honen azken helburua da jarduera ekonomiko handiago bati lotuta enpleguaren kalitatea eta kantitatea handitzea eta, horrekin batera, herritarren ongizate orokorra hobetzea.

Sustapen-jarduera hori finantziazio-tresna diferenteak ezartzen gauzatzen da. Tresna horiek EAEko Administrazioaren babes zuzena edo zeharkakoa jasotzen dute.

BERME SISTEMA

ETEEi kreditua ukatzeko finantza-erakundeek argudiatutako arrazoi nagusia hauxe da: ETEek aurkeztutako bermeak ez direla nahikoak.

Likidezia-ingurune ia mugagabe batean, alderdi nagusietako bat, nagusia ez bada, bermeen gaia da.

Egindako inkestetan egoera hori islatzen bada, zalantzarik gabe berme-sistemen konfigurazioak problematika horren konponketan aktiboki parte har dezakeela ez dago zalantzarik, ETEen finantziazioan bitartekari espezializatu gisa jardunez.

Bistakoa da ondo egindako Berme Sistema eraginkorrek eta sinesgarritasun egokiarekin ETEaren finantza-problematika konpon dezakeela, epe luzera finantziazio-iturriak eskuratzen lagunduz, kredituaren kostua murriztuz, eta berme gehigarriak (hipotekak) edo finantzaketa-erreparoak ekidinez.

Zorionez Euskadin berme-sistema finkatua dugu, ETEen kolektibo garrantzitsuak biltzen dituen Elkargi-Oinarri bezalako elkar bermatzeko sozietateari esker.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak sozietate hori eta bere espezializazio teknikoa kontuan hartzen ditu, ETEei finantza-babesa emateko programetan maileguen arriskua analitzatzeko, 2009an zirkulatzailaren lehen finantziazio-programan ere egin zen bezala.

Enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresariei eta profesional autonomoei babesteko Finantza Programari dagokionean, ondorengo ezaugarri hauek azpimarratu behar dira:

A.- Bermeak eta zorra finantzatzeko tresnak.

1.- ETEak finantzatzeko bideak Eusko Jaurlaritzaren birfidantzamenduarekin

Elkargi-Oinarri EBBarekin urtero adostutako ETEak finantzatzeko bideak —Eusko Jaurlaritzaren birfidantzamenduarekin— finantza-erakundeei ETEak finantzatzeko eragiketak formalizatzeko aukera eman die.

Hasieran bide horien helburu zen, batez ere, inbertsio-eragiketak finantzatzea. Krisia iritsi zenean, ordea, finantziazio-bideen artean garrantzi handiagoa hartu zuten aktibo zirkulatzailerako finantzatzera zuzendutakoak. 2009. urtean sortu ziren bide horiek, finantza-entitateek arriskuak hartzeari zioten beldur handiaren aurrean, zirkulatzailerako finantzatzeko bide tradizionalak itxi ondoren, enpresa askoren egoera latza —berehalako finantziazio-premiei aurre egiteko zailtasunak zituzten, hau da, produkzio-sistemarekin zuzenean lotutakoak— arintzen saiatu ziren.

Eusko Jaurlaritzak une honetan EBBei birfidantzatzeko hiru hitzarmen ditu indarrean:

- Birfidantzamenduko oinarritzko hitzarmena
- Birfidantzamenduko hitzarmen osagarria
- Zirkulatzailerako finantzatzeko birfidantzamendu-hitzarmena

2.- 60/40 bidea.

Denboraldi berri honen beste berrikuntzetako bat Bankuekin irekitako bidea edo 60/40 bidea izenez ezagutzen dena izan da. Bertan, Eusko Jaurlaritzak bide hori sinatzen duten bankuek formalizatutako eragiketen % 60 bermatzen du. Bide horren bitartez, inbertsioko zein zirkulatzailerako eragiketak finantzatzeko beste aukera bat eman nahi zen eta nahi da — oraindik indarrean baitago—, elkarren bermerako sozietateen bidez instrumentatuak osatzeko.

3.- Aurrerakin itzulgarriak

Krisian dauden enpresak berregituratzeko GAUZATU programa, AFI programa, Ekintzaile programa eta Bideratu programa bezalako ibilbide luzeko beste bide batzuk.

Gauzatu Industria, Gauzatu Ezartzeak Atzerrian aurrerakin itzulgarrien programekin inbertsioen sustapena eta enplegu-sorkuntza finantzatzen dira oinarri teknologikoko eta izaera berritzaileko proiektu berritan.

Ondorengo programarekin —Ekintzaile programa— enpresa-proiektu berriak finantzatzen lagundu nahi da, gerta daitezkeen kobraezinak babestuz. Horiek, normalean, oso handiak dira ekintzailatza-lanari lotuta daudelako eta, zenbatekoari dagokionean, irismen txikiak, bide horren bitartez gaitutako maileguen zenbateko txikiagatik.

Azkenik, Bideratu-Berria programa krisian dauden enpresak berregituratzera zuzenduta dago.

4.- Luzaro EFC

Garrantzitsua da ere aipatzea, esparru honetan duela 20 urtetik hona Eusko Jaurlaritza partaide den Luzaro EFC —hasieran enpresei partaidetza-maileguak ematen espezializatua zegoen— egiten ari den lana. Luzaro EFC finantziario beste arlo batzuetara zabalduz joan da bere jardura, hala nola, finantza-finkapeneko eragiketara edo berrikuntza teknologikoko bidera. Luzaro EFCrekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak funtzio bikoitza burutzen du. BEIren aurrean finantziario-bideak bermatu ditu Luzarorentzat 200 M euro arteko funtsak eskuratzeko. Halaber, partaidetza-maileguen kreditu-arriskuaren eta erakundeak ematen duen berrikuntza teknologikoko bidearen % 50 bere gain hartzen du.

5.- Euskal Finantza Erakundea

2009an Eusko Jaurlaritzaren mendeko Euskal Finantza Erakundearen sorrerak EAEn kreditu publikoaren egituraketan aurrerapauso garrantzitsua ekarri du. Gaur egun jada egituratuta ditu ETEentzako eta MIDCAPentzako ondorengo finantziario-bide hauek:

- Lehena kanpo-merkataritzako eragiketen finantziarioa errazteko, esportazioari finantziarioa emanez EBBen bermearekin.
- Halaber, Midcap bidea izeneko ahalmen ertaineko enpresentzako bide bat jarri du abian, eta kopuru handiko proiektutan parte hartzeko helburua du, inbertsio-proiektu estrategikoei lotutako finantza-erakundeekin batera.
- Sendotu programa nekazaritzako, basogintzako eta arrantzako jarduerak finantzatzeko, finantza-erakundeekin eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin elkarlanean.

Jardura horiek garatzeko, Institutuak, sortu zeneko kapitaletik hartutako funts propioez gain, BEIren 150 milioi euroko mailegua dauka.

B.- Sendotzeko eta funts propioetan parte hartzeko tresnak

Esparru honetan garatutako jarduketak bi tresna erabiliz gauzatzen dira:

1- **Arrisku Kapitaleko Kudeaketa Sozietatea.**

Euskadiko Arrisku Kapitaleko Kudeaketa. ETEen —ez finantzarioak ezta higiezinak ere— kapital sozialean parte-hartze minoritarioa eta aldi batekoa izatea du helburu.

Hazteko, zabaltzeko, laguntza berriak lortzeko edo nazioartekotzeko beharra duten enpresei, bazkide profesional bat bilatzen duten familia-enpresei, palanka-efektuko enpresak erosi nahi dituzten zuzendaritza-taldeei (MBO/MBI) eta Euskadin finkatzeko bertako bazkide bat bilatzen duten atzerriko enpresei laguntzea da helburu.

Sozietateak kudeatutako Arrisku Kapitaleko Funtsak:

- Ezten Arrisku Kapitaleko Funtsa. Hasierako fasean dauden enpresen kapitalean inbertsioak, orientazio gisa, enpresen aurreneko hiru urteetan.
- Suztapen Arrisku Kapitaleko Funtsa. Inbertsioak finkatuta dauden edo garatzen ari diren (hedapena, ordezkapena eta/edo berbideratzea) enpresen kapitalean.
- Ekintzaile XXI Arrisku Kapitaleko Funtsa. Informazioaren teknologia berrien erabilera intentsiboa eta estentsiboa egiten duten enpresa berritzaileen kapitalean inbertsioak.
- Seed Gipuzkoa AKS. Oinarri teknologikoko eta berritzaileko enpresa sortu berrien kapitalean inbertsioak Gipuzkoako lurralde historikoan.
- Lanpar 2013 Arrisku Kapitaleko Funtsa. Langileek enpresen kapitalean parte har dezaten laguntzeko Arrisku Kapitaleko Funtsa.
- Basque FCR. Edozein garapen-fasetan enpresen kapitalean inbertsioak egiteko (23 milioi euro) eta ekintzailetza sustatzeko (5 milioi euro) Arrisku Kapitaleko Funtsa.

2.- Ekarpén Private Equity SA

Inbertsio pribatuko bitarteko bat da, baina FELren eta Foru Aldundien ekarpenekin eratutako parte-hartze publiko (% 40) garrantzitsua dauka. Garatzeko aukera handiak dituzten industria-proiektu garrantzitsuak plazaratzen eta garatzen laguntzeko helburua dauka.

Oro har eta proiektu bakoitzerako, 10 eta 40 milioi euro arteko inbertsio-bolumen bat kudeatzen du, operaziorako balio-tarte zabala markatuz. Gutxienez 5 milioi euroko inbertsioak duten proiektu txikitan ere inbertitu ahal izango da.

Sozietateak proiektuan parte-hartze ehunekoa, oro har, minoritarioa izango da finantza-bazkide gisa eta bozkatzeko eskubidea duen kapital sozial osoaren % 10 eta % 40 bitartean mugituko da.

Inbertsioaren —eta ondorioz, desinbertitzeko erabakiak— iraupen-denbora, batez ere, inbertitutako kapitalen denboran errentagarritasuna maximizatzean oinarrituko da; batez ere, xede den enpresaren berezko ezaugarriak (garapen-fasea, posizionamendua, tamaina, etab.) eta bere etorkizuneko bilakaera kontuan hartuta. Irizpide orokor gisa inbertsioaren 6 edo 8 urte inguruko iraunkortasuna finkatzen da.

Kapital sozialean parte-hartzea, batez ere, kapitala zabalduz egingo den arren, partaidetza-mailegu bihurtzeko aukera ere ikusten da. Mailegu horien ordaintetan tasa finko bat gehi negozioaren bilakaeraren arabeko tasa aldakor bat erabiltzen dira, baita modu mistoan ere.

C.- ETE ekimena: Feder Funtsa – EIB

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek ekimen honetarako Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik 10 milioi euro jarri dituzte, eta Estatuko Administrazio Orokorrek beste 2 milioi euro.

ETE ekimenaren finantza-tresnaren helburua da ETEei finantzazioa baldintza egokitan eskuratzen laguntzea. Banku-bitartekariak mailegu bakoitzean hartutako arriskua eta dagokion kapital-kostua murriztuko dituzte, EIB-EIFek emandako eta Eusko Jaurlaritzak kudeatutako FEDER 2014-2020 Funtzen ekarpenetan oinarritutako finantza-berme batez baliatzen baitira. Funtz agortuak.

FINANTZIAZIO TRESNA PRIBATUAK

EaSI-SOCIAL LABORAL Kutxa

Europako Inbertsio Funtza – European Investment Fund (EIF)

Gizarte-ekonomiako enpresak finantzatzeko bidea

Gizarte Ekonomiak oso pisu handia dauka euskal ekonomiaren gainean: enpleguen % 10 baino gehiago gizarte-ekonomiaren enpresei lotuta daude. LABORAL Kutxa Gizarte Ekonomiaren zati da, eta Euskadin eta Estatuan kreditu-kooperatiba nagusia da.

Era berean, LABORAL Kutxa Gizarte Ekonomiaren aktore nagusiekin nahasten da, lankidetzaz eta negozio-akordioak adostuz; horien artean, Erkide eta Asle-rekin EAEn, ANELEkin Nafarroan eta CEPESekin Estatuan. Eta Euskadiko gizarte-ekonomiako enpresen erdia baino gehiago LABORAL Kutxaren bezero dira.

Horrekin guztiarekin, Laboral Kutxak gizarte-ekonomiako enpresen bultzadarekin bat egin nahi du, proiektu berriak gauzatzeko, enpresak sortzeko eta finkatzeko lagunduz, Europako gizarte-ekonomiako enpresentzako finantziario-bide espezifiko handienaren aldeko apustu garbia eginez.

Europako Inbertsio Funtza 1994an sortu zen enpresa txikiei laguntzeko. Akziodun nagusia Europako Inbertsio Bankua da. Eta horrekin batera “BEI Taldea” izenekoa osatzen du.

EIFak arrisku-kapitala ematen die enpresa txikiei (ETE); bereziki jardueran hasten dutenei eta teknologiaren sektoreko bideratutako enpresei.

Finantza-erakundeak (bankuak eta kreditu-kooperatibak adibidez) ere bermeak eskaintzen dizkie ETEei egin dizkieten maileguak estaltzeko.

Funtza ez da mailegu-erakunde bat eta enpresei ez dizkie diru-laguntzak ematen edo kudeatzen, eta ez du enpresa horietan zuzenean inbertitzen. Bankuen, kreditu-kooperatiben eta beste finantza-bitartekari batzuen bitartez lan egiten du. Burutzen dituen jardueretarako, EIFak bere funts propioak —Europako Inbertsio Bankuak edo Europar Batasunak emanak— erabiltzen ditu.

EaSI bideari buruz:

- Enplegurako eta gizarte-berrikuntzarako programa europarraren barruko merkataritza-esparruan finantziario-bide berezi bat da.
- Europa osoan EIFek emandako bide nagusia da, gizarte-ekonomiarako espezifikoa.
- LABORAL Kutxak 50 milioi euroko bolumena formalizatzeko konpromisoa hartu du, bi urte eta erdiko epe maximoan.
- Bere helburua da, gizarte-ekonomiako enpresei —hauek finkatzeko eta garatzeko— finantza-laguntza ematea, kredituko kontu korrante eta maileguen moduan.
- Hona hemen finantziario-bide honen ezaugarri nagusiak:
 - Produktu mota: Mailegua eta kredituko kontu korranteak.
 - Zenbatekoa: 500.000 euroraino.
 - 3 eta 120 hilabete arteko epea.
 - Hipotekazkoak ez diren bermeak.
 - Ondorengo jarduerako sektoreak baztertzen dira: armen produktzioa eta komertzializazioa; giza klonazioa; tabakoa eta zorizko jokoak.

- Hona hemen erakunde jasotzaileak:
 - Kooperatibak
 - Lan-sozietateak
 - Enplegu-zentro bereziak
 - Gizarteratzeko enpresak
 - Elkarateak
 - Fundazioak
 - Arrantzale-kofradiak
 - Mutualitateak
 - Guztiak, gizarte-ekonomiaren enpresak eta urtean 30 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioarekin.

LABORAL Kutxa – Europako Inbertsio Funtsaren arteko lankidetzako beste bide batzuk

Bi erakundeen arteko laugarren lankidetzaz-hitzarmena da.

Beste hitzarmen batzuen bilakaera azpimarragarria:

- PROGRESS (2013ko urria): 24 milioi euro ekintzaileentzako, pertsona zaugarrientzako, autonomoentzako eta mikroenpresentzako mikrokreditutan.
- 1.560 proiektu finantzatu urtebetean 24 milioi euroak agortuz.
- EASI MICROFINANCE (2015eko urria): 75 milioi euro ekintzaileentzako, pertsona zaugarrientzako, autonomoentzako eta mikroenpresentzako mikrokreditutan.
- 2017ko abuztura arte 2.877 proiektu finantzatu dira, guztira 44,1 milioi eurekin.
- INNOVFIN hitzarmena (2016ko ekaina): 100 milioi euro enpresa berritzaileak edo proiektu berritzaileak finantzatzeko.
- 2017ko abuztura arte 133 proiektu finantzatu dira, guztira 33 milioi eurekin.

7. DIAGNOSTIKOA ETA AMIA

7.1. Kooperatibismoa eta AMIA

Kooperatibismoaren erakunde nagusiekin egindako bileren ondoren, Kooperatibismoaren sendotasun, ahulgune, aukera eta mehatxu nagusiak identifikatzera heltzen gara.

AMIA KOOPERATIBISMOA	
AHULGUNEAK	SENDOTASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> Baliabide propio mugatuak Finantziazioa. Indartu beharreko erakundeen presentzia Ereduaren ezezagutza. Gizartean kooperatiben balio erantsia erakutsiko duten adierazleak. Ikusterik ez izatea 	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-lanean kooperatibismoaren presentziari dagokionean, munduko lurralde nagusia. Langileen parte-hartzea. Kalitatezko enplegua eta konpromisoa. Aberastasunaren banaketa. Gizarte-eraldaketa eta lurraldea sustatzea. Kohesioa. Iraunkortasuna epe luzera. Talde dibertsifikatua eta nazioartekotua: 261 enpresa, 101 kooperatiba eta 128 filial. Kudeaketa-eredua. Balioak Elkarren arteko lankidetzak
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> Zalantzak erreforma fiskaletan. Irudi "ez-moderno" gazteen artean. Gaur egun egonkortasuna ez da balio nagusi bat. Kapitalean langileen parte-hartze minoritarioko formulak ezustean sartzeko (baita abantaila fiskalekin ere). Preskriptoreek (aholkularitzak, ...) eredia ez ezagutzea Erabilerarik ez duen ereduaren balioak: kolektiboaren nagusitasuna banakako, autoexijentzia, erantzukidetasun eta abarren gaintik Talentua antzemateko/atxikitze zailtasunak. 	<ul style="list-style-type: none"> Nazioartekotzea Kapital Sozietateak Kooperatibetan eraldatzea. (belaunaldi-errelebo falta, enpresa- edo finantza-zailtasunak, jabetzak abandonatzea,...) Kultura parte-hartzailea. Zerbitzuen kooperatibaren garapena (sektore berriak zabaldu). Eskola-bizitzan zehar kooperatibismo-arloan prestatzea. EKGKren existentzia aprobetxatzea eta dinamizatzea. Funts Ekonomiko bat sortzea kooperatiben inbertsio- eta likidezia-operazioak berriro finkatzeko.

7.2. LSA – ASLE eta AMIA

Lan Sozietateen erakunde nagusiekin eta ASLE elkartarekin izandako bileren ondoren, Lan Sozietateen sendotasun, ahulgune, aukera eta mehatxu nagusiak identifikatu genituen:



AMIA LSA	
AHULGUNEAK	SENDOTASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> • Ereduaren ezezagutza. • Ikusterik ez izatea. • Enpresen arteko lankidetzak falta da. • Enpresen tamaina. • Bazkideen finantza-gaitasun mugatua. • Finantza-erakundeek eta Elkargik eskatutako bermeei aurre egiteko gaitasuna falta da. • Adierazleak falta dira. • Lanbide-profilak aurkitzeko zailtasuna • Lan Sozietatearen ezagutza duten zuzendariak falta dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Barne-ituneko kultura eta antolakuntzako malgutasun handiagoa. • Lan Sozietateetan pertsonen inplikazioak pisu handiagoa du. • ASLEren zerbitzuak eskainiz Euskadiko Lan Sozietateei babesa emateko badago egitura bat. • Parte-hartze kudeaketa, gizarte-kohesioko balioak, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa. • Elkartasuna (Gizarte Segurantzaren sistema orokorrerako ekarpena) • Lan Sozietatea, Estatuan eta Europan enpresan langileek parte hartzeko erreferentzia-eredua. • Jarduera-sektore guztien presentzia. • Lurraldean sustraitzea.
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Lan Sozietateko preskriptore falta. • Ekintzailtza kolektiboaren kaltetan, lan autonomoaren aldeko ekintzailtzaaren sustapenaren orientazioa. • Erabaki-zentroen galera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lan Sozietatea, belaunaldi-txandakatzea egiteko aukera nagusi gisa. • Lan Sozietatea, birmoldaketa-prozesuetarako aukera egoki gisa. • LANPAR funtsa, enpresan pertsonen parte-hartzea sustatzeko finantza-tresna gisa. • Enpresan langileen parte-hartzearen aldeko gidalerro europarrak.

7.3. Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa eta AMIA

Gizarte Ekonomiako eta Ekonomia Solidarioko erakunde nagusiekin bilera egin ondoren, Gizarte Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren sendotasun, ahulgune, aukera eta mehatxu nagusiak identifikatu genituen.

AMIA GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA	
AHULGUNEAK	SENDOTASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> • Neurtzeko tresnak falta dira. • Adierazleak falta dira. • Lankidetzak falta da. • Sozietatean ez da ezagutzen. • Tamaina. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hautazko ekonomiako eta ekonomia solidarioko sareen gidatzeko ahalmena. • Sektoreen heterogeneotasuna: bankuak, energia berriztagarriak. • Banku-lankidetzek oso eragin-esparru zabala dute. • 6.000 bazkide baino gehiago dituzten elkarteak, lurraldearekin oso lotuak.
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Esker on txikia. • Hedapen falta. • Gizarte-legitimaziorik eta -sentsibilizaziorik ez. • Hezkuntzan ez dago. • Politika publiko ez oso sozialak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-ekonomiaren bitartekariak eta sustatzaileak sortzea. • Sare desberdinen arteko aliantzak. • Europako Banku Zentralak eta atzerriko inbertsio-funtsek aliantzak sortu nahi dituzte. • Elkarrekintza sozialeko eta ekonomikoko espazioak sustatzea.

8. IKUSPEGIA, ERRONKAK ETA HELBURUAK



Ekintza Planen hedapena

1. GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESA GEHIAGO ETA HOBEAK

1.1. GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESA GEHIAGO

Berariazko helburua	Jarduketa-bidea	Definizioa	Ekintzak / Laguntza Bideak
1.1.1 Sortzea	Sustapena eta Ekintzailletza	Ekintzailletza sustatzea. Gizarte-ekonomiako enpresak eratzeko laguntzak ematea.	EKINTZAILLETZARAKO: <ul style="list-style-type: none"> Gizarte-ekonomiako enpresak eratztea. Helburu hauetarako gizarte-ekonomiako enpresak bezala dira: lan elkartuko kooperatibak, lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatibak eta lan-sozietateak; baita unibertsitate-ikasleek osatutako sozietate kooperatiboak eta nekazaritza-kooperatibak ere. Gizarte Ekonomiako enpresa baten eraketarekin zuzenean lotutako sustapen-ekintzak burutzea, urtebetez ondoren egin beharreko doako jarraipen eta aholkularitza barne hartuta. Egoera kritikoa dauden sozietate anonimoen edo mugatuaren bideragarritasun ekonomikoko eta finantzarioko azterketak egitea. Lurralde Sustapen Planifikatua
		Sormena babesteko zerbitzu tekniko integralak	<ul style="list-style-type: none"> Preskriptoreei, aholkularitzei, eskualde-agentziei zuzendutako komunikazio-kanpainak. Ekintzailletza hedatzea, besteak beste, ASLE, Elkarlan eta abarren bitartez. Euskadiko enpresen sustapen-zentro guztietan egotea eta preskriptore nagusiekin lotura edukitzea.
1.1.2. Eraldatzea	Enpresa-eraldaketa	Merkataritza-enpresak sustatzea eta Gizarte Ekonomiako enpresatan eraldatzea (S. Koop. Erantzukizun Mugatuko Lan Sozietatea)	<ul style="list-style-type: none"> Egokitasun-irizpideen arabera, eraldaketa horri aurre egin ahal izango dioten enpresen bilaketa, aukeraketa eta iragazpena. Hurrengo urtean ekintza hau burutzeko laguntza-bideak planifikatzea.
		Krisian edo belaunaldi-txandakatzean murgilduta dauden enpresetan eraldaketa-prozesuak babestea, enpresaren jarraipena ziurtatzeko eta lanpostuak mantentzeko. (Koop. E. Erantzukizun Mugatuko Lan Sozietatea)	<ul style="list-style-type: none"> Krisian edo belaunaldi-txandakatzean murgilduta dauden enpresei babesa, Gizarte Ekonomia sortzeko eta bertan hazteko.

1. GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESA GEHIAGO ETA HOBEAK

1.2 GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESA HOBEAK

Berariazko helburua	Jarduketa-bidea	Definizioa	Ekintzak / Laguntza Bideak
1.2.1 Haztea	Lan Sozietateen eta kooperatiben sozietate-oinarria handitzea	Hainbat kolektiboren enplegarritasunari babesa: <ul style="list-style-type: none"> Besteen kontura lan-kontratua duten bazkide ez diren pertsonak laneratzea. Langabeak, desgaitasuna duten pertsonak eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak laneratzea. 	LANERATZEKO LAGUNTZAK: <ul style="list-style-type: none"> Enpresetan langabeak hartzea. Aktiboan dauden besteren kontura lan-kontratua duten bazkide ez diren langileak laneratzea. Desgaitasun-izaera duten pertsonak laneratzea. Nekazaritzako kooperatibetan laneratzea.
1.2.2 Finkatzea	Laguntza teknikoa. Enpresa kudeatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko tresna berrietara egokitzea	Enpresei babesa ematea, enpresa-garapeneko planak eta gobernu korporatiboko eredu berriak prestatzen eta ezartzen, besteak beste, laguntza teknikoa eskainiz.	LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA Besteak beste, adibide gisa aurkezten dira. <ul style="list-style-type: none"> Urteko Kudeaketa Plan bat lantzea eta ezartzea eta Diagnostiko Ekonomiko eta Finantzario bat egitea. Gizarte Ekonomia ordezkatzen duten erakunde nagusiek aurretiazko azterketa ekonomiko eta finantzarioa egitea euren erakundeei bermeak emateko. Kostuak kalkulatzeko eta kontrolatzeko metodoak prestatzea eta ezartzea. Kooperatiben eta Lan Sozietateen aholkularitza espezifiko merkataritzakudeaketan.
	Gizarte-ekonomiaren prestakuntza	Gizarte-ekonomiaren arloan prestakuntza, ikerketa, komunikazioa eta irakaskuntza-hedapena sustatzea.	PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZAK: <ol style="list-style-type: none"> Prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza espezifiko eta berezia gizarte-ekonomian. Junior Kooperatibak eta Eskola Kooperatibak. Ikerketa gizarte-ekonomian. Hedapena <ul style="list-style-type: none"> Aldizkako argitalpenak editatzea. Aldizkako jardunaldiak ospatzea.
	Gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzak	Gizarte-ekonomiako enpresen arteko elkarlana sustatzea, mantentzeko berme gisa, eta enpresa- eta gizarte-arloak hazteko eta garatzeko.	ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZARI BABESA: <ul style="list-style-type: none"> Gizarte-ekonomiako enpresak ordezkatzen dituzten erakundeek euren enpresentzat egindako elkarlankidetzarako proiektu bat lantzea eta ezartzea. Akordioak prestatzea eta formalizatzea eta enpresen arteko lankidetzak-egitura edo enpresak sortzea, gizarte-ekonomiako enpresek bat egiteko behar diren akordioak barne hartuta. Nazioartekotzea. Gizarte-ekonomiako enpresen nazioartekotzea formalizatzeak eragindako gastuak.

	Enpresen eta erakundeen elkarte-egiturak finkatzea	Egitura asoziatiboaren EAEko gizarte-ekonomiako enpresak eta erakundeak finkatzea.	Ondorengo EGITURAK finkatzeko LAGUNTZA: <ul style="list-style-type: none"> Lan-sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak. Lan elkartukoak ez diren kooperatibak eta erakunde asoziatibo konfederalak. Gizarte-ekonomiaren eta ekonomia solidarioaren erakunde asoziatiboak eta enplegu zentro berezien elkarteak.
	Arau-esparrua egokitzea <small>(Hezkuntza Sailarekin koordinazioa).</small>	Eskola-curriculumaren egokitzea Gizarte Ekonomia barne hartzeko.	Euskal curriculum aldaketza. Gizarte-ekonomiaren unitate didaktikoa (kooperatibismoa, lan-sozietateak, etab.) barne hartzea.
	Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza gehiago unibertsitate aurreko eta unibertsitateko ehunean, eskola-curriculumean sartu arte	Batxilergoko, LHko eta Unibertsitateko ikastetxei komunikatzeko eta haietan zabalteko kanpainak	2018ko proiektu pilotua

GIZARTE EKONOMIA ZABALTZEA ETA HEDATZEA

2.1. Bistaratzea	Gizarte-ekonomiako enpresak bistaratzea	Komunikazio-plan bat diseinatzea eta abian jartzea.	KOMUNIKAZIO KANPAINA. EUSKARRIAK: Hainbat euskarritan —grafiko, irrati, prentsa, TB, Internet eta Multimedia bidez— ondoren deskribatutako urteko komunikazio-kanpainak burutzeko behar diren euskarriak gauzatzea. Bideoak eta edukia euskarri digital eguneratuan egitea. <ol style="list-style-type: none"> Kooperatibak. <ul style="list-style-type: none"> Kooperatibismoaren eguna uztaileko lehen larunbatean ospatzea, EKGKrekin eta Konfekoop-ekin batera. - Enpresa garrantzitsutan atek zabaltzeko egunak antolatzea. Kooperatiben arloan arrakasta izan duten kasuak azaltzea (Orona, Ulma, Eroski, etc.) Lan-sozietateak <ul style="list-style-type: none"> LSak sustatzea "Txemi Cantera" sarien bidez, ASLErekin elkarlanean. - "Txemi Cantera" sarien banaketaren ospakizuna. Gizarte Ekonomiaren eguna <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Ekonomiaren egunaren ospakizuna. EGES Biltzarra GSEF foroaren bitartez 2018an. Urtean ekitaldi bat antolatzea (Eges sarearekin batera urtero egun hori noiz ospatuko den zehaztu), gizarte-ekonomiako enpresek zein gainerakoek bertan parte har dezaten.
	Gizarte-ekonomiaren alde egiten duten finantza-erakundeak ezagutzera ematea	Gizarte-ekonomiarako finantziario-akurrak —hautazko finantziarioa barne— ezagutzera ematea.	<ul style="list-style-type: none"> Kreditu Kooperatibak ezagutzera ematea: Laboral Kutxa, Elkargi/Oinarri, Banku Etikoa, beste finantza-erakunde batzuk.

<p>2.2 Parte-hartzea</p>	<p>Parte-hartzea</p>	<p>Enpresetan langileen parte-hartzea bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Langileen parte-hartzea bultzatzea enpresetan, kudeaketan, mozkinetan eta/edo merkataritzako mota juridikoko (ez gizarte-ekonomiako) enpresen jabetzan, ondorengo ekintza hauen bitartez: Parte hartzeko laguntza. Eredu parte-hartzaileen eta euskal ekonomiari egokitzeko gaitasunaren balioztatze-jarduerak garatzea. Langileen parte-hartzearen onuren berri emateko eta zabaltzeko jarduerak burutzea. Langileek enpresen kudeaketan eta kapitalean parte-hartzea sustatzeko programak sendotzea, enpresen harreman berrietan berrikuntza-tresna gisa. <p>*Hori guztia, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren politikekin bat etorri.</p>
<p>2.3. EGE</p>	<p>Enpresaren Gizarte Erantzukizuna</p>	<p>Gizarte-erantzukizuna: Enpresaren gizarte-erantzukizuna sustatzea, Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Esparru Plan berri bat prestatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Konpromiso etikoa eta gardentasuna, baliabide publikoak administratzen eraginkortasuna eta efizientzia eta iraunkortasun orokorra (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) bezalako gaietan gobemantza publikoko arauekin eta jarduketekin kudeaketa arduratsuko printzipioak integratzea, enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboari buruzko gobernu-kontseiluan EGE Plana onartuz eta sailen arteko jarraipen-batzorde bat eratuz. Enpresen gizarte-erantzukizuna barneratzeko euskal eredu baten diseinurako erakunde arteko koordinazioa, eta horretarako enpresen gizarte-erantzukizuneko erakunde arteko euskal forua sortzea. Enpresaren gizarte-erantzukizuna euskal enpresetan —bereziki ETEetan— hedatzea, eta neurtzeko eta hobetzeko metodologiak ezartzen (bikaintasun-ereduak enpresaren gizarte-erantzukizunean) laguntzea.
<p>2.4. GIZARTE BERRIKUNTZA</p>	<p>Gizarte-berrikuntza</p>	<p>Kolektiboa sustatzea banakakoaren aurrean</p> <p>Talentu eta Garapen pertsonala/profesionala</p>	<ul style="list-style-type: none"> Sozialki berritzaileak diren enpresa-sektore estrategikoen garapena babestea. Proiektu kolektiboak indartzea banakakoaren aurrean (herritarren parte-hartzea eta sentsibilizazioa) Banako proiektu pertsonala garatzea enpresa-proiektuaren eta proiektu kolektiboaren barruan.

3. EUSKARRI EGITURAK

3.1 Datuak lortzea	<p>Gizarte-ekonomiako enpresen ikusgaitasuna hedatzeko eta hobetzeko balio duten datuak eskuratzea.</p> <p>Ikerketa gizarte-ekonomian.</p> <p>Hedapena.</p>	<p>Gizarte-ekonomiako enpresen ikusgaitasuna hedatzeko eta hobetzeko balio duten datuak eskuratzea.</p> <p>Ikerketa gizarte-ekonomian.</p> <p>Hedapena.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Barometroaren bitartez herritarrek gizarte-ekonomiaz duten ezagutza neurtzea. 2. Unibertsitateek 5-10 adierazle hautemanekin eta beste hainbeste hautemangarri identifikatzea eta neurtzea. 3. Irizpideak bateratzea. <ul style="list-style-type: none"> - GEEB. - Eusko Jaurlaritzaren datu estatistikoak.
3.2 Koordinazioa	<p>Erakunde barneko eta Erakundearteko koordinazioa eta koordinazio publiko eta pribatua.</p>	<p>Gizarte Ekonomiako eragile nagusien artean koordinatzeko erakundearteko mahaia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ EKGRekin koordinatzea. ▪ Kooperatiben eta lan-sozietateen arloan akordio publiko-pribatuak sinatzea (Konfepoop, ASLE) ▪ Udalekin eta Aldundiekin kanpo-koordinazioko bilerak egitea. ▪ Erakunde barneko koordinazioa. Planetan parte hartzea, beste sail batzuekin batera.
3.3 Finantzaketa	<p>Gizarte Ekonomiako enpresei finantziarioa lortzen laguntzea.</p>	<p>Finantza-erakundeen eta beste tresna batzuen bitartez, finantziarioa lortzen laguntzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Finantziario Kapituluan deskribatutako bideei Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin batera jarduteko bideak jakinaraztea, ematea eta informatzea. ▪ Oinarri-Elkargi EBBen bideragarritasun-azterketak. ▪ Abal pertsonalak murrizteko edo ekiditeko modua analizatzea, jada abalatuta edo berrabalatuta daudenean.
3.4 Legeria	<p>Legeria</p>	<p>Kooperatiben legearen esparrua espezifikoki arautuko duen esparru juridikoa sortzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gobernu Kontseiluak Kooperatiben Legearen aurreproiektua onartzea ▪ 2018ko hirugarren lauhilekoan Legebiltzarrera igortzea.

*Euskadi,
auzolana, bien común*

